



BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

XV LEGISLATURA

Serie A:
PROYECTOS DE LEY

Núm. 4-9

Pág. 1

SUPLEMENTO EN EUSKERA AL NÚM. 4-9

APROBACIÓN DEFINITIVA

121/000004 Proyecto de Ley de prevención de las pérdidas y el desperdicio alimentario.

El texto insertado a continuación ha sido traducido por la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, con carácter de versión auténtica en los términos previstos en la disposición adicional segunda de la Reforma del Reglamento del Congreso, aprobada el 23 de septiembre de 2023, y en virtud del Convenio de colaboración entre el Congreso de los Diputados y dicha academia, para la formación, conocimiento y difusión del euskera, especialmente en el ámbito del lenguaje jurídico.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 2

ELIKAGAI-GALERAK ETA -XAHUKETA PREBENITZEKO LEGEA

Hitzaurrea

I

Elikagaien ugaritasuna da nazioen garapen sozioekonomikoaren lehenbiziko kanpo-adierazpenetako bat. Mende luzeetan, uzten ezegonkortasunak eta albaitaritza- eta landare-osasunarekin loturiko arazoek, ekoizpen-bitartekoen atzerapenak, faktore klimatiko, geografiko eta naturaletatik bereizteko ezintasunak, ekoizpen-, garraio-, biltegiatze- eta merkaturatze-egituren gabeziek eta merkatuaren efizientziarik ezak maiz eragin zituzten hildakoak eta hondamen ekonomikoak, sarritan eragin zuten emigratu beharra, eta usu murriztu zuten garatzeko gaitasuna makina bat gizartetan. Gaur egun, mundu garatuak biztanleriaren gehiengoarentzat nahikoa elikagai produzitzen du, eta behar adinako kalitatez. Hori horrela, posible da elikagaiak egokiro eta arrazoizko prezioan banatzea. Aurrerapen horiek gorabehera, goseak oraindik ere benetako mehatxua eta eguneroko zorigaitza izaten jarraitzen du mundu osoko milioika pertsonarentzat.

Elikagai-galerek eta -xahuketak agerian uzten dute elikadura-sistemen funtzionamendua ez dela efizientea eta gizartea ez dagoela kontzientziatuta. Elikagaien segurtasuna ezertan eragotzi gabe, elikagai-galera eta -xahuketa nabarmenak gertatzen dira elikakate osoan, hasi ekoizpenetik eta kontsumoraino. Uzta ondoko faseen eta txikizkako salmentaren artean soilik, mundu osoan ekoizten den elikagai-kantitatearen % 14 galtzen da, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) 2019an aditzera eman zuenez. Elikagai-galeren eta -xahuketaren jatorriari erreparatzen badiogu, askotariko arrazoiak topatuko ditugu: ekoizpen-jardueretan input desegokiak erabiltzea; uzta-lanetarako ezarritako plangintzan eta egutegian akatsak izatea; ekoizpen-, bilketa- eta manipulazio-jardunbide desegokiak baliatzea; biltegiatze-baldintza eta tenperatura-kontrol kaskarrak izatea produktu galkorrak kontserbatzerakoan; merkaturatze-baldintza eta -teknika desegokiak erabiltzea txikizkako salmenta-etapan; elikadura-zerbitzuen hornitzaileen jardunbide desegokiak; kontsumitzaileek portaera desegokia izatea elikagaiak erostean, prestatzean eta kontsumitzean; biltegiatze-ekipamendu, garraio eta gaitasunik ez izatea edo baliatzen direnak askiek izatea; elikakateko agenteen artean antolaketa eta koordinazio desegokia izatea edo komunikaziorik ez edukitzea; eta azpiegitura eskasak izatea.

Horrenbestez, botere publikoen eta hornidura-kateko operadoreen agindu moralak da elikagai-galeren eta -xahuketaren bolumen hori gogorki murriztea.

Alabaina, ez dira alferrik galtzen berez hain beharrezkoak diren elikagaiak bakarrik; aitzitik, horiek ekoizteko erabiltzen diren baliabide esanguratsuak ere xahutzen dira, baita inbertituriko ahalegin izugarriak ere —giza ahaleginak ez ezik, teknikoak eta ekonomikoak ere bai—. Eta alferrik galtzen da, berebat, hainbeste lan eta dedikazioarekin lortutako balio erantsia. Xahuketak lehen sektoreko balio-kateak apurtzen ditu, erregio eta operadore askoren garapen ekonomikoa galgatzen du, bereziki landa-eremuena, eta alferrikako inbertsioa eginarazten du, beste helburu batzuetarako baliatzerik izango ez dena. Ildo horretan eginiko kalkuluek diotenez, baliabide-xahuketa horrek 936 mila milioi dolarreko urritzea ere eragiten du termino ekonomikoetan (728 mila milioi euro baino gehiago urtean). Hala jasotzen dute FAOren *Mitigation of food wastage. Societal costs and benefits* (2014) eta *Food wastage footprint. Full-cost accounting. Final report*. (2014) txostenek.

Askotan, gainera, ingurumen-politika oztokatzen dute oharkabea, alferrik galdutako elikagaiek aztarna hidriko eta karboniko handia sortzen baitute. *Emisiones de gases de efecto invernadero en el sistema agroalimentario y huella de carbono de la alimentación en España* txostenaren arabera (Aguilera, E., Piñero, P., Infante Amate, J., González de Molina, M., Lassaletta, L., Sanz Cobeña, A., 2020), elikagai-xahuketak eragiten ditu, oro har, nekazaritzako elikagaien sistemaren guztizko emisioen laurdenak. Horrek tona bat CO₂ baliokide ematen du pertsonako urtean termino absolutuetan. Alferrik galdutako elikagaiek aukera-kostu onartezina gehitzen dute, erabilitako baliabideak direla eta; izan ere, input ugari xurgatzen dute, fruiturik emango ez dutenak, eta lurzorua beste helburu

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 3

batzuetarako erabiltzea eragozten dute (bi milioi hektarea deforestatu dira kontsumitu ez diren elikagaiak ekoizteko). Munduko nekazaritza-azaleraren ia % 30 erabiltzen da urtean alferrik galtzen edo xahutzen diren elikagaiak ekoizteko. Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldeak (IPCC) klima-aldaketari eta lurzoruari buruz 2019ko abuztuan argitaratutako txosten bereziak jasotzen duenez, «elikagai-galerak eta -xahuketa murrizteak gutxitu egin ditzake berotegi-efektuko gasen emisioak, eta lagundu dezake aldaketara moldatzen, elikagaiak ekoizteko behar den lur-azalera murriztuta. 2010etik 2016ra bitartean, munduko elikagai-galerek eta -xahuketak eragin zuten berotegi-efektuko gasen emisio antropogeno guztien % 8 eta % 10 artean. Gaur egun, ekoiztutako elikagai guztien % 25 eta % 30 bitarte galtzen edo xahutzen da».

Beraz, elikagai-galerak eta -xahuketak kalte konponezina eragiten dute justizia sozialean, ingurumen-babesean eta hazkunde ekonomikoan, eta alfer-alferrik, gainera.

Ildo horretan, Espainiak utzi egin dio nagusiki nekazaritza-gizarte izateari, eta hirugarren sektoreko gizarte urbanizatua izatera igaro da. Elikagai-xahuketari aurre egitea nekazaritza-gizartei oso loturiko kezka izan da tradizionalki. Gure artean, hauxe agintzen zuen 1584ko maiatzaren 15eko Pragmatikak (Bilduma Berriaren VII. liburuko XX. tituluaren I. Legean jasoa): «Biltegian ogi asko badago eta ugaritasun horrek berritzea eragiten badu, alferrik ez galtze aldera, bana biezaiete udalek beharra dutenei, hitzemanik betiere bueltatuko dutela atzera hurrengo uztan». Ekoizpen- eta logistika-gaitasunak hobetzeak, gizarte- eta kontsumo-aldaketa biziek, urbanizazioak eta bizimodu berriek, eta alderdi naturalekiko mendekotasun txikiagoak aldatu egin dute produkzioaren errealitatea, eta hornidura-katearen atzeko mailetara eraman dute elikagai-galeren eta -xahuketaren arazoaren parte handi bat. Hori horrela izanik, eta gizarte garatu guztietan badiren arren pobrezia-poltsak, herritar gehien-gehienek ziurtatuta daukate kalitatezko janari nahikoa iristeko modua. Beraz, pribilegio-egoera hori galtzeko arriskuaren inguruko pertzepzio-aldaketak eta kontsumo-eredu berriek zera eragin dute, ugaritasunaren hauskortasuna ahaztea eta janari-kantitate izugarriak baztertzea. Errealitate horrek ahuldu egiten du ekonomia nazionala, areagotu egiten ditu profesionalen eta kontsumitzaileen aukera-kostuak, zama handiagoak sartzen ditu elikagaiak behar bezala tratatzeko, eta kanpo-efektu negatibo garrantzitsuak sortzen ditu; gizarte garatuetakoa ahulenean, oster, egiazko arazoak dituzte elikadura askotarikoa eta nahikoa iristeko, eta herrialde pobreenek, berriz, gizarte- eta osasun-arazoak bizi dituzte goseak edo azpielikadurak eraginda, zeinak bereziki kaltegarriak baitira haurrentzat. Gure nekazaritzako elikagaien sektorearen indarrak, alabaina, beti erakutsi du moldatzeko eta modernizatzeko duen gaitasun mardula; garairik zailenetan ere, ziurtatu du kalitate handiko elikagaien hornidura aldian-aldian egitea, eta bermatu du, orobat, landa-eremuetan biztanleria finkatzea, ingurumena eta paisaia babesten laguntzea, eta gastronomia eta bestelako ezaugarri kultural definitzaileak babestea. Ezinbestekoa da, beraz, gure herrialdeak elikagai-galeren eta -xahuketaren aurkako borrokarekin duen konpromisoa, betiere balio horien eta katearen mailen zein hirugarren sektoreko entitateen erantzukizunaren ondorio logiko gisa. Konpromiso horrek, aldi berean, gure bilakaera sozioekonomikoa islatzen du. Nazio garatuenek, horrenbestez, ezinbestean izan behar dute gogoan beren iragana, eta ezin dituzte ahaztu mundu hobe baten aldeko apustu irmoa gehien behar dutenen aurrean dauzkaten betebeharrak.

II

Espainiako eta Europako gizarteak ez dira gelditu elikagai-galerek eta -xahuketak eragindako egoeratik kanpo, ez eta Estatuko eta Europar Batasuneko instituzioak ere —galerok eta xahuketak elikagaitzaren maila guztietan eragiten baitute—. Hala, neurriak eskatzen dituzte elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko; izan ere, neurri horiek aukera ederra izango dira elikagai-hornidura ziurtatzeko, ingurumen-arriskuak murrizteko, baliabide berriztaezinak beste erabilera batzuetarako gordetzeko, eta galera ekonomikoak saihesteko. Ondorioz, botere publikoak hasiak dira arazoak jabetzen eta apurka-apurka esku hartzen, egoera jasangaitz hori ahal den neurrian amaitzeko.

Nazioartean, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen Goi Mailako Foroan, zeina Erroman egin baitzen 2009an, *Nola elikatu mundua 2050ean* izeneko dokumentua onetsi zen. Han, agerian jarri zen beharrezkoa dela elikagai gehiago ekoiztea, ugaritzen ari den populazioaren gero eta eskari handiagoari aurre egiteko. Agerian geratu zen, orobat, erabat premiazkoa dela elikagai-galerei eta -xahuketari aurre egitea, iritzirik arazo hori mundua elikatzeke alferrik galdutako aukera dela, batez ere populazio behartsuenen nutrizio-maila hobetzeko; aldi berean, natura-baliabide finituen erabilera mugatzen da, eta hondakin biodegradagarrien kudeaketa optimizatzen da.

Arazo horren inguruan kontzientzia suspertzeko, Elikagai-xahuketaren aurkako Nazioarteko Eguna izendatu zuten irailaren 29a.

Esparru horretan, 2030 Agendaren garapen jasangarrirako 12. helburuak (GJH) 3. helmugan xedatzen du ezen 2030erako «txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean biztanleko elikagai-xahuketa erdira murriztu behar dela, eta elikagai-galera murriztu behar dela ekoizpen- eta hornidura-kateetan». Helburu hori oso lotuta dago beste batzuekin, hala nola 2. GJHarekin («Goserik eza»), 11. GJHarekin («Hiri eta erkidego jasangarriak») edo 13. GJHarekin («Klimaren aldeko ekintza»), bai eta 14. eta 15. helburuekin ere (itsaspeko bizitzari eta ekosistemei buruzkoak, hurrenez hurren); beraz, helburu hori arlo horretako nazioarteko jarduketaren zeharkako elementu bat da.

Era berean, G20 taldeko Nekazaritzako ministroak Istanbulen batzartu ziren 2015ean, elikagai-hornidura ziurtatzeari loturiko erronka gero eta handiagoi heltzeko. Adierazi zuten, «kezka handia dago elikagaien balio-kate guztietan elikagai-galerek eta -xahuketak duten irismen nabarmenagatik» eta horrek ekonomian, ingurumenean eta gizartean duen garrantziagatik; beraz, elkar hartu zuten elikadura-sistema jasangarriak ezartzeko, elikagai-galerak eta -xahuketa murrizte aldera. Ondoren, «Elikagaien Segurutasunari eta Elikadura-sistema Jasangarriei buruzko G-20 Taldearen Ekintza Plana» aurkeztu zuten, taldekideentzako jarduketa-gida gisa.

Elikagaiak xahutzearen aurkako borroka, beraz, funtsezkoa da elikagai-hornidura ziurtatzeko ikuspegi multilateralaren esparruan. FAOren esanean, elikagai-horniduratzat hartzen da pertsona guztiek elikagai seguruak eta nutritiboak fisikoki, sozialki eta ekonomikoki iristeko modua izatea, betiere nutrizio-beharrizanak eta elikadura-lehentasunak asetzeko behar adinako kopuruan, bizitza aktiboa eta osasungarria izan dezaten. Hori lortzeko, askotariko neurriak proposatu ditu: plataforma bat eratzea, galerak eta xahuketa murrizteko, eta, horretarako, gomendio koherenteak egitea hornidura-kate osoan, ekoizpen- eta uzta-galerak jardunbide jasangarrien bidez saihesteko —bai teknikoki, bai alderdi sozioekonomikoan eta ingurumenekoan—; biltegitratzeko eta prozesatzeko instalazio eta bitarteko egokiak ziurtatzea, eta, horretarako, gaitasunak garatzea eta lehengaien eta teknologia efizienteen eskuragarritasuna ziurtatzea; etiketatze- eta marketin-teknikak hobetzea, eta, bide horretan, xahutzen edo baztertzen ez diren elikagai seguruak eta nutritiboak sortzea; portaera informatua eta kontsumo jasangarria hobetzea; eta xahuketa elikakate osoan murriztea, kate horren barruan HORECA kanala (hotelak, jatetxeak eta kafetegiak), eta etxeak sartuz.

FAOk 2011n kaleratutako *Elikagai-galerak eta -xahuketa munduan: irismena, kausak eta prebentzioa* azterlana egiazko inflexio-puntua izan zen mundu osoan arlo horri loturiko kontzientzia pizteko. Azterlanaren emaitzek iradokitzen dutenez, ekoiztitako elikagaien herenak alferrik galdu edo xahutu egiten dira; hau da, 1300 milioi tona urtean: «Alfer-alferrik erabiltzen dira elikagaiak ekoizteko baliabide-kantitate ikaragarriak, eta alfer-alferrik izaten dira, era berean, galdu edo xahutzen diren elikagaiak ekoizteko sortutako berotegi-efektuko gasen emisioak».

Azterlanaren arabera, alde nabarmena dago herrialde aberatsetako eta herrialde behartsuetako portaera-ereduen artean. Lehenbizikoetan, galera gehienak kontsumo-etapan kontzentratzen dira, baita elikagaiak jateko egokiak direnean ere, kontsumitzailearen portaeraren eta hornidura-kateko agenteen arteko koordinaziorik ezaren ondorioz; bigarrenetan, berriz, elikagaiak hornidura-katearen hasierako eta tarteko etapetan galtzen dira batez ere, askotariko mugak direla eta, hala nola ekonomikoak, teknikoak eta aprobetxamendua kudeatzekoak, baldintza klimatiko zailtan dauden biltegitratze- eta

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 5

hozte-instalazioen ingurukoak, eta azpiegiturarekin, ontziratzearekin eta merkaturatze-sistemekin lotutakoak.

Horren erakusgarri, Europar Batasunean xahuketaren % 40 kontsumitzailearengan kontzentratzen dira, eta beste horrenbeste transformazioan eta fabrikazioan; jatetxeetan % 15, eta banaketan, azkenik, % 5.

Batasunak, hain justu, zenbait ekimen onetsi ditu jardunbide horien aurka egiteko. Hori horrela, Europako Batzordeak *EB-27ko elikagai-hondakinei buruzko prestaketa-azterlana* egin zuen 2010ean, egoeraren inguruko lehen hurbilketa gisa.

Bide horretan ipinitako lehen mugarrria izan zen Europako Parlamentuaren ebazpena, 2012ko urtarrilaren 19koa, «nola saihestu elikagaiak xahutzea: EBn elikakatearen efizientzia hobetzeko estrategiei» buruzkoa. Parlamentuak gogoratu zuenez, une horretan Batasunean bertan 79 milioi pertsona zeuden pobrezia-atalasearen azpitik, eta horietatik 16 milioik jasotzen zuten ongintza-organismoen elikadura-laguntza.

Instituzioei, estatuei eta hornidura-kateko operadoreei eskatzen zitzairen heltzeko xahuketaren arazoari, eta, ildo horretan, mahai gainean jartzen ziren arazo etikoak, ekonomikoak, sozialak eta nutrizionalak, baita osasun- eta ingurumen-ondorioak ere (elikagai-hondakinek ekarpen nabarmena egiten diote klima berotzeari, eurok sortzen duten gas metanoa dela eta, zeinaren berotegi-efektua 21 aldiz handiagoa baita karbono dioxidoarena baino). Hala, efizientzia hobetzea eta Europako politika publikoetan txertatzea bilatzen zen, eta neurriak hartzen ziren 2025erako elikagaien xahuketa erdira murrizteko eta, aldi berean, biohondakinen sorrera prebenitzeko.

Ebazpenaren arabera, «nahitaezkoa da elikagai-xahuketa murriztea elikakate osoan, hasi landaguneetatik eta kontsumitzailearen mahaira iritsi arte», eta, ildo horretan, «estrategia koordinatu bat hartu behar da, eta Europa osorako ekintza zehatzak egin behar dira gero, jardunbide hobeak trukatzeko barne (...). Hala, zuzeneko harremanak suspertu behar dira ekoizleen eta kontsumitzaileen artean, eta laburtu egin behar dira elikagaien hornidura-kateak; era berean, erantzukizun partekatu gehiago hartzeko eskatu behar zaie alde interesdun guztiei, bai eta azkenok koordinazioa areagotzera adoretu ere, guztia ere logistika, garraioa, izakinen kudeaketa eta ontziratzea hobetzen jarraitzeko». Izan ere, askotarikoak dira xahutzearen arrazoiak: «Gehiegizko ekoizpena, produktua gaizki egokitzea (gaizki pentsaturiko tamaina edo forma), produktua edo ontzia narriatzea, merkaturatze-arauak (itxura-arazoak edo ontzi akastunak), eta izakinen kudeaketa txarra edo merkataritza-estrategia desagokiak».

Ebazpenak azpimarratzen duenez, «nekazaritza, haren izaera dela eta, efizientea da baliabideak erabiltzen, eta, funtsezko-zeregina izateaz gainera, aurrelari ere izan daiteke elikagaiak xahutzearen aurkako borrokan». Hala, arau-proposamenetan kontuan hartzeko eskatzen du, eta dei egiten du, orobat, xahutzeari buruzko definizio harmonizatu bat finkatzeko, ikerketan inbertitzeko, hezkuntza suspertzeko eta kanpo-itxurari aplikatu beharreko kalitate-betekizunak berrikusteko, dela Europako edo Espainiako legediak ezarritakoak, dela enpresen barne-arauek ezarritakoak. Ildo horretan, Batzordeak Europar Batasuneko kontsumitzaileen ahalduntzeari buruz egindako azterlanak (SEC(2011)0469) zer ondorioztatzen duen gogorarazten du: Europako herritarren % 18k ez dute ulertzen «kontsumitzeko data lehenetsia» esaldia.

Urte batzuk geroago, Europako Parlamentuak aho batez onetsi zuen «Baliabideen erabilera efizienteari buruzko ekimena: elikagaien xahutzea murriztea, elikagaien segurtasuna hobetzea»-ri buruzko ebazpena (2017). Ekimen horrek arazoari eta konponbideei erreparatzen die, eta gogorarazten du beharrezkoa dela presako neurri eraginkorrak eta koordinatuak hartzeko xahuketa hori murrizteko, bai eta helburu zehatzak finkatzeko ere.

Dokumentu horretan jasotzen diren neurrien artean, nabarmentzekoa da sentsibilizazio-jarduerak eta komunikazio-kanpainak egiteko beharra. Era berean, Batasuneko elikagaien xahuketa 2025erako % 30 murrizteko helburua ezartzen du, eta 2030era arte, berriz, % 50. Azpimarratzen du galdutako edo baztertutako elikagaien eta azpiproduktuen erabilera optimiza litekeela pentsuen ekoizpenean, mantenugaien birziklapenean eta lurzoru-

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 6

medeagarrien ekoizpenean. Proposatzen du, berebat, birplanteatu egin behar direla «iraungitze-data» eta «kontsumitzeko data lehenetsia» adierazleak, eta identifikatu egin behar direla, berebat, data horretan saldu ez diren produktuak segurtasun osoz berreskuratzea ahalbidetuko duten logistika- eta antolaketa-ereduak. Halaber, familiak adoretzen ditu astean egun batean sobera gelditutako elikagaiak aprobetxatzeko, eta eskuarki bazterturik geratzen diren produktuen salmentarako merkatuak sortzeko deia ere egiten du. Horrekin batera, gizarte-berrikuntzako proiektuen potentziala nabarmentzen du, hala nola soberako elikagaiak biltzea eta elikadura-laguntzan diharduten elkartei dohaintzan ematea, bai eta merkaturatze-kate laburrak suspertzea ere. Iradokitzen du, orobat, onets daitekeela «samariar onaren legedia», baina kontuan harturik elikagaiak dohaintzan emate hutsak ez dituela konpontzen pobrezia-aren arazo nagusiak, eta elikagaiok kontrolen mende eman behar direla, merkatu alternatibo bat sortzera desbidera ez daitezen. Azkenik, gomendatzen du jatetxe-arloko lizitazioek barnean har dezatela elikagai-xahuketak murrizteko eta kudeatzeko planak aurkezteko betebeharra, eta irizten dio komenigarria dela operadoreek beren erantzukizun zatia berenganatzea; ildo horretan, elikagaien xahuketari buruzko *Every Crumb Counts* baterako adierazpena («apur guztiek balio dute») aplikatzeko eskatzen du, baita xahuketari buruz txikizkariak hartutako akordioa aplikatzeko ere.

2016an ildo bereko zenbait ekimen hartu ziren, zenbait ikuspegi eta instituziotatik, baina helburu partekatu batean elkarturik. Alde batetik, elikagai-galerei eta -xahuketari aurre egiteko EB Plataforma jarri zen abian, betiere estatuen eta agenteen arteko esperientzien eta jardunbide egokien truke eraginkorra ahalbidetzeko. Bestalde, Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plana onetsi zen, eta Ekonomia eta Gizarte Batzordearen «Elikadura-sistema jasangarriago»-ei buruzko Irizpenak Europako Batzordea eta estatu kideak premiatu zituen elikadura-sistema jasangarri eta bidezko bat lortzera, klima errespetatuko duena eta, hala, xahuketa murriztuko duena. Gainera, Europako Kontuen Auzitegiaren 34/2016 Txosten Bereziak («Elikagai-xahuketaren aurkako borroka: EBrentzat aukera bat elikagaien hornidura-katean baliabideak modu efizienteagoan erabiltzeko») EBri exijitu zion efizienteagoa izan behar duela elikagai-xahuketaren aurkako borrokan, eta, ildo horretan, ezinbestekotzat jo zuen helburuak lortzeko definizio bat finkatzea. Azkenik, Kontseiluaren «Zirkulua ixtea: EBren ekintza-plan bat ekonomia zirkularrerako» izeneko ondorioak onetsi ziren, eta Kontseiluak elikagai-galerei eta -xahuketari buruz ateratako ondorioek berretsi egin dituzte helburu horiek; hala, jasangarritasuna eta elikagai-hondakinak eta -xahuketa murriztea suspertzen du. Barnean hartu zen, beste zenbait aspekturen artean, estatu kideei eta Batzordeari datuak biltzeko eskatzea, arazoa hobeto ulertzeko; elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzearen garrantzia azpimarratzea; eta saldu gabeko elikagaiak antolakunde solidarioei, sozialei edo helburu humanitarioak dituztenei dohaintzan emateko erraztasunak eskaintzea. 2018an, ondorio horiek ezartzeko bidean eginiko aurrerabideen lehen ebaluazioa egin zen, eta, geroago, 2020an, bigarren ebaluazioa. Azken horretan, Alemaniako presidentetzak galdetegi bat aurkeztu zion estatu kideei eta Batzordeari. Ondorioztatu zen ezen estatu guztiek hartu dituztela neurri nazionalak elikagai-galerak eta -xahuketa murrizteko, eta maiz neurriok integratu dituztela beren estrategietan edo legedi nazionalan. Alde horretatik, bereziki nabarmendu zen ekimen horien aldeko tratamendu fiskala.

Era berean, Batzordeak aurrera egin zuen elikagaiak zenbateraino xahutzen diren neurtzeko EBren metodologia bat garatzen, eta EBren jarraibideak landu zituen elikagaiak dohaintzan ematea eta elikagai zaharrak pentsutarako erabiltzea errazteko.

Era berean, Hondakinak Esparru-zuzentarauaren (HEZ) 2018ko berrikuspena aplikatuz, ezartzen da ezen estatu kideek neurriak hartu behar dituztela hondakin-sorrera prebenitzeko eta, zehazki, elikagai-hondakinak murrizteko (zeinei elikagai-xahuketak ekarpen handia egiten baitie), eta, horretarako, neurketa-sistemak ezarri behar dituztela sortutako elikagai-hondakinak eta haien bilakaera ezagutzeko, horien oinarri gisa harturik metodologia komun bat, zeina onetsi baitzen Batzordearen 2019ko maiatzaren 3ko (EB) 2019/1597 Erabaki Eskuordetuaz; izan ere, erabaki eskuordetu horrek osatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentaraua, betiere elikagai-

hondakinak uniformeki neurtzeko metodologia komunari eta gutxieneko kalitate-betekizunei dagokienez.

Zuzentarauak ezartzen du beharrezkoa dela hornidura-kateko mailetako bakoitzean sortutako elikagai-hondakinen kopuru osoa jakinaraztea, oinarri gisa harturik erabakiari jarraikiz kate-maila horietako bakoitzerako lau urtean behin egin daitezkeen neurketak. Hala, Batzordeak 2023an balioetsi behar zuen bideragarria ote zen Europa osorako murrizketa-helburuak ezartzea. Zuzentarauak estatu kideei hondakinen sorrera prebenitzeko ezartzen dizkien neurriek, gutxienez, elikagai-hondakin gutxiago sortu beharko dute ekoizpen primarioan, transformazioan eta fabrikazioan, txikizkako salmentan eta elikagaien beste banaketa-mota batzuetan, jatetxeetan eta elikagai-zerbitzuetan, bai eta etxeetan ere. Horrela lortuko da Nazio Batuen garapen jasangarrirako helburuei laguntzea, eta, zehazki, txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean % 50 murriztea mundu osoko *per capita* elikagai-hondakinak, eta, horrekin batera, ekoizpen- eta hornidura-kateetan elikagai-galerak murriztea 2030erako. Era berean, giza kontsumorako elikagaiak dohaintzan ematea eta beste birbanaketa-bitarteko batzuk sustatuko dituzte, eta lehentasuna izango du elikagaiak giza kontsumora bideratzeak, animalia-elikadurara eta elikadurarako ez diren produktuen transformaziora bideratu aurretik.

Adierazi behar da ezen 7/2022 Lege berriak, apirilaren 8koak, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzekoak, aurreikusten dituela hondakin-sorrera prebenitzeko neurriak; esate baterako, agintaritza eskudunek neurriak zehaztu beharra, helburu gisa harturik, gutxienez, elikagai-hondakinen sorrera murriztea ekoizpen primarioan, transformazioan eta fabrikazioan, txikizkako salmentan eta elikagaien beste banaketa-mota batzuetan, jatetxeetan eta janari-zerbitzuetan, bai eta etxeetan ere. Neurri horren bidez, elikagai-hondakinak pertsonako % 50 murriztea lortu behar da txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean, bai eta elikagai-galerak % 20 murriztea ere ekoizpen- eta hornidura-kateetan 2030era bitartean, 2020arekin alderatuta. Berebat, elikagai-dohaintza eta giza kontsumorako beste birbanaketa-mota batzuk ere suspertuko dira, eta horiei lehentasuna emango zaie animalia-elikaduraren aurretik eta elikadurarako ez diren produktuak transformatzearen aurretik. Gainera, 5000 biztanletik gorako udalerri guztiak biohondakinak (frakzio organikoa) bereiztera behartzen dituen neurri bat ezartzen du, eta jasotzen du elikagai-hondakinei buruzko artikuluko espezifiko bat ere.

Elikagai-hondakinak eta elikagai-xahuketa definitzeko dagokionez, adierazi behar da *elikagai-hondakin* kontzeptua definiturik dagoela Hondakinen Esparru-zuzentzarautik datorren apirilaren 8ko 7/2022 Legean. Hori horrela, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko (EE) 178/2002 Erregelamenduaren 2. artikuluko definizioaren arabera, elikagai-hondakina hondakin bihurturiko elikagai oro da —eta «hondakin» gisa hartzen da, berebat, edukitzaileak botatzen duen edo botatzeko asmoa edo betebeharra duen edozein substantzia edo objektu—.

(EE) 178/2002 Erregelamenduan ezarritako «elikagai» definizioak oro har biltzen ditu elikagaiak elikakate osoan, hasi ekoizpenetik eta kontsumora iritsi arte. Era berean, elikagaiek badituzte jangarriak ez diren zatiak —nola eta ez diren bereizten zati jangarrietatik ekoizten diren garaian, hala nola haragiaren hezurak—, giza kontsumora bideratuak. Horrenbestez, elikagai-hondakinek barnean har ditzakete ahoratzeko elikagai zatiak dituzten elementuak, baina baita ahoratzeko ez diren elikagai zatiak dituztenak ere. Beraz, *elikagai-xahuketa* kontzeptua *elikagai-hondakin* kontzeptuaren azpimultzo bat izango litzateke; izan ere, azken horrek hartzen ditu barnean «ahoratzeko ez diren elikagai zatiak», xahuketa kontzeptuaren barruan sartzen ez direnak.

Nolanahi ere, elikagai-galeren eta -xahuketaren aurkako borrokari lotutako jarduketak Europako beste jarduketa batzuetan agertzen dira, hala nola Europako Itun Berdean eta, bereziki, Baserritik Mahairako Estrategian, zeinek zeharkako elementu gisa txertatu baitituzte ekinza horiek Europar Batasuneko gainerako politiketan, edo eskoletan fruta eta esnea kontsumitzeko programa, haurren eta gazteen artean elikadura-ohitura onak sustatzera bideratua, zeinarekin batera antolatu ahal baitira elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzera bideratutako hezkuntza-neurriak. Horiek guztiak, azken finean, 2023rako Nekazaritza Politika Erkide (NPE) berriaren funtsezko muin izatera iritsi dira.

Bestalde, Espainia Zirkularra 2030 Ekonomia Zirkularrerako Espainiako Estrategiaren helburua da elikagai-hondakin gutxiago sortzea elikakate osoan: pertsonako % 50 murriztea etxean eta txikizkako kontsumoan, eta % 20 ekoizpen- eta hornidura-kateetan 2020. urtetik aurrera, garapen jasangarrirako helburuei (GJH) laguntze aldera. Era berean, Ekonomia Zirkularreko I. Ekintza Planak jasotzen du elikagai-hondakinei buruzko apartatu bat (2.2 apartatua), bi neurri aurreikusten dituena, eta tresna horiekin koherentea da lege hau.

Hain zuzen ere, etorkizuneko Nekazaritza Politika Erkidean (NPE) duen isla hori maila nazionalen ere agertzen da, eta, beraz, NPE berriaren Plan Estrategikoan 9. helburu espezifikoa jasotzen da, betiere nekazaritzak elikaduraren, osasunaren eta jasangarritasunaren arloko eskakizun sozialei emaniko erantzuna hobetzeko. Helburu horren definizioan, premia gisa identifikatu da elikagai-xahuketa murriztea ekoizpenetik kontsumitzaileetara iritsi arteko bidean.

Espainiako Erresumak, alabaina, jarri zituen abian beste ekimen asko xahuketa geldiarazteko. Ekimenon artean, nabarmentzekoa da Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren 2013ko «Elikagai gehiago, xahuketa gutxiago» estrategia aitzindaria, elikakateko agenteen eta administrazio publikoen artean gardentasuna, elkarriketa eta koordinazioa suspertzeraz bideratua, bai eta modu koordinatuan jarduketak garatzera ere, zeinak lagungarriak izan baitira jarrerak ez ezik, lan- eta kudeaketa-sistemak ere aldarazteko, eta, ondorioz, xahuketa mugatzeko eta ingurumen-presioak murrizteko.

Hauek izan dira jarduketa-ildo nagusiak: agente interesdunen arteko lankidetzaz, gizarte-kontzientziazioa areagotzea, prebentziora eta murrizketara bideratutako jardunbide egokiak bultzatzea, eta soberakina optimizatzea. Hori guztia diziplina eta sektore anitzeko ikuspegiarekin egikaritu da, eta elikagaien hornidura-katean inplikaturako agente guztiek zuzenean edo zeharka lagundu dute prebentzioan eta murrizketan. Ildo horien artean, nabarmentzekoa da informazioa emateko eta kontzientzia pizteko ahalegina (kate-maila guztietan elikagai-xahuketaren aurkako konpromiso irmoak lortzeko), edo zenbait arau-aldaketa, hala nola jogurta saltzeko epemuga erretiratzea. Elikagai-kontratazioko Merkataritzako Jardunbide Egokien Kodeak, berebat, konpromisoa hartu du bereziki erreparatzeko katearen fase guztietan elikagai-hondakinen bolumena murrizteari.

Beste gako-elementu bat izan da teknologia berriei eta berrikuntzari laguntzea, hala nola elikagaien bizitza baliagarria handitzeko aukera ematen dutenei, batez ere ontziratzeari dagokionez. Hori horrela, ekintzailatza eta berrikuntza bultzatu ziren elikagai-xahuketa murriztera bideratutako enpresa-proiektuei loturik edo elikagai-xahuketaren urrezko lau arauak identifikatzeko: erosketa arduratsuaren bidez murriztea, elikagaiak birbanatzea elikagaiok salbatzeko, soberakinak sormenez aprobetxatzeko berrerabilteza, eta birziklatzea, konpostatzera ausartuz. Estrategiak askotariko ekimenak jasotzen zituen ebaluazioaren, zabalkundearen eta sustapenaren eremuan; azterlanak, berrikuntza eta lankidetzaz, eta ahalegin gehienak kontsumitzaileen artean aldaketak bultzatzera bideratu ziren, nekazaritzako elikagaien kateko azken hartzaile gisa; izan ere, kontsumitzaileak indar-posizioa du erosteko erabakiak hartzean, eta merkatua orientatzen du. Alde horretatik, eskoletan antolatutako jarduketak, «Elikagai-xahuketaren aurkako asteak» eta informazio- eta sensibilizazio-kanpainak egin ziren.

Hasieratik pentsatu zen estrategia hori gomendioen, borondatezko akordioen eta autorregulazioaren bidez atondu behar zela; izan ere, ulertzen zen elikakateko agenteek berek erakutsi behar zutela konpromisoa eta haiei zegokiela strategiari atxikitzea, euren buruak konbentzitu zituztelako arazo hori murrizteko esku hartu beharraz.

Hala ere, beste dokumentu batzuetan egiaztatu den bezala, lehen erronka nagusia izan da zehatz-mehatz jakitea zein diren arazoaren nondik norakoak eta tamaina. Hori dela eta, elikakateko agenteekin lan egin da, eta azterlanak egin dira haiekin, helburu gisa harturik jakitea zein etapatan gertatzen diren elikagai-galerak eta -xahuketa, haien zenbatespena egitea, eta sorturiko eragin ekonomiko eta sozialaren berri izatea. Horietako lehena 2013ko elikagai-xahuketari buruzko azterlan monografikoa izan zen, Nekazaritzako elikagaien sektorearen konfiantza-giroaren barometroaren barruan egina. Azterlan horretan ondorioztatu zen ezen banatzaile gehienek, batez beste, produktuen % 5,6 erretiratzen

zituztela kontsumitzeko data lehenetsia eta iraungitze-data gainditzeagatik, eta kontsumitzaile gehienek, beren esanean, bazekitela iraungitze-dataren eta kontsumitzeko data lehenetsiaren arteko aldea. Hala ere, azterlan horren arabera, bazen hobetzeko tarterik. 2015ean berriz egin zen azterlana, eta apur bat jaitsi zen erretiratutako elikagaien kantitatea. Alabaina, toki berera jarraitzen zuten joaten: zaborretara. Aldiz, pertsonen % 95ek uste dute supermerkatuek elikagaien bankuei dohaintzan eman beharko lizkieketela iraungitzeaz dauden produktuak, garbi badute ez dituztela elikagaiok salduko.

2014an, Espainiako etxeetako elikagai-xahuketaren kuantifikazio-panela jarri zen abian, eta, geroago, etxeetatik kanpoko elikagai-xahuketaren kuantifikazio-panela. Izan ere, etxeak epe luzeko ikuspegia duten neurketa-sistema egonkorrak eta ebolutiboak direnez gero, informazio zehatza ematen dute, bai erositako moduan botatzen diren elikagaiei buruz, bai etxean prestatutako eta zaborretan amaitzen duten errezeta-hondarrei buruz, bai etxetik kanpoko elikagai eta edariei buruz.

Espainiako etxeetako elikagai-xahuketaren kuantifikazio-panelaren datuen arabera, xahuketaren bilakaera desberdina izan da neurketak hasi zirenetik, baina nabarmendu da urtaro bereziki beroetan (2015eko udan, bai eta 2018ko udan eta udazkenean ere) handiagoa izan dela xahuketa-maila. Zenbait alditan joera orokorra beheranzkoa izan ondoren, 2018-19ko udazken-neguetan lortu zen serieko baliorik handiena (712,2 milioi kg-ko xahuketa). Guztira, 1352,5 milioi kg xahutu ziren 2019an, 2018an baino % 1 gehiago, nahiz eta ordutik aurrera pixkanaka jaisten joan den xahuketa.

2020ko udaberri-udetako datuen arabera, pandemia-garaian, elikagaiak xahutzen dituzten etxeen kopurua jaitsi egin zen apur bat % 74,4ra (2019an % 79 izan ziren), nahiz eta aldi horretan nabarmen handitu zen etxeko kontsumoa. 2019ko udaberri-udetako datuekin alderatuta ere, % 2,6 jaitsi da xahuketa-bolumena.

2020an, orotara 25 milioi kg inguru xahutu dira, hau da, etxe bakoitzeko ia 1,4 kg. Xahuketaren % 80 baino gehiago erabili gabeko produktuak dira, eta narriatzeagatik botatzen dira. Frutak, barazkiak eta esnekiak dira gehien xahututako produktuak: erabili gabeko produktu guztien % 50 baino gehiago. Gehien xahutzen diren errezetak, berriz, lekaleak, egoskariak eta zopak edo pureak dira.

Beste alde batetik, etxeetatik kanpoko elikagai-xahuketaren kuantifikazio-panelak emaniko datuen arabera, kontsumitzaileek 12 hilabeteko aldian (udazken-negua + 2020ko udaberri-udak) etxetik kanpora guztira 30,5 milioi kg xahutu zuten orotara; *per capita* datuetan emanda, 0,9 kg inguru pertsonako. Aldi horretan, barazkiak eta berdurak, haragia eta ogia xahutu ziren gehien; hiru kategoria horiek bildu zuten xahututako guztizkoaren % 50 baino gehiago. Edarien artean, nabarmenezkoak dira edari hotzak, bereziki freskagarriak, ura eta garagardoa (% 75 inguru orotara).

Estrategiaren bigarren etapak jatorrizko helburuetan sakondu zuen, zortzi ardatzen bidez: jakintza sortzea; prestakuntza eta sensibilizazioa; jardunbide egokiak sustatzea; beste agente batzuekin lankidetzan aritzea; akordio sektorialak; araugintza-aspektuak; ikerketa eta berrikuntza, eta, azkenik, xahuketa, ingurumena eta klima-aldaketa.

Etapak berri horretan, Ministerioak Espainiako industrian eta banaketan sorturiko xahuketa zenbatetsi zuen. Hala, ikusi zuen pixkanaka handitzen ari dela xahuketa prebenitzearen eta murriztearen garrantziari buruzko sentsibilitatea, bai eta beste ikuspegi bat ere: lankidetzaren bidez bakarrik lor daitekeela arazo hori murriztea eta konpontzea.

Egiaztatu zen, orobat, enpresek gero eta kontzientzia handiagoa dutela elikagai-xahuketaren aurka borrokatzeko, enpresen % 71k baitute elikagai-xahuketaren kontrako plan bat. Enpresen % 61,1ek barne-jardunbideak sustatzen ditu, eta % 51,39k katearen aurreko edo ondorengo mailekin lan egiten du, elikagai-xahuketa murrizteko.

Ondorioztatzen da ekoizpen efizienteagoa bilatzen dela. Ekoizpenari dagokionez, elikagai-industriako produktu bukatuaren kg bakoitzeko 0,0022 kg azpiproduktu sortzen dira —ondoren aprobetxatzeko modukoak—, eta 0,004 kg hondakin. Horrek esan nahi du enpresak lanean ari direla elikagaiak ahalik eta gehien aprobetxatu ahal izateko.

Elikagaiak xahutzearen aurkako borrokan gehien erabiltzen dituzten jardunbideak langileen eta hornitzaileen euren prestakuntza eta kontzientziazioa dira —ikastaroen, hitzaldien, bisiten eta abarren bidez—, bai eta prozesuen eta makinaren kontrol zehatzak ere

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 10

—prozesuaren efizientziarik ezak ezabatzeko—. Azterlan horrek aztertu zuen, era berean, COVID-19ak elikagaien xahuketan izaniko eragina, eta azaleratu zuen enpresen % 20k baino gehiagok areagotu zutela elikagaien dohaintza. Aditzera eman zen, gainera, handiagoa izan zela elkartasuna: 10 enpresatik 9k dohaintzak egin zizkien gobernuz kanpoko erakundeei (GKE).

Estrategiaren urte hauetako balantzea aurrerabide bat izan da jarduketak garatzeari dagokionez, zeinak lagungarriak izan baitira jarrerak, lan-sistemak eta kudeaketa-moduak aldatzeko, betiere helburu gisa hartuta elikagaien xahuketa mugatzea eta ingurumen-presioak murriztea. Estrategiaren indarraldia 2020an amaitu ondotik, lege hau da elikagai-xahuketaren arazo larriari heltzeko prozesuan egingo den hurrengo urratsa, helburu gisa harturik ordenamenduan zenbait printzipio eta arau txertatzea, arazo horri aurre egite aldera eta erabat desagerrarazteko oinarriak ezartze aldera.

III

Hala ere, badirudi elikagai-xahuketaren aurka egindako ahaleginak ez direla izan nahikoa. Hori dela medio, eta ikusirik elikagai-galeren eta -xahuketaren arazoak hornidura-katearen maila guztiei eragiten diela eta faktore ugari esku hartzen dutela, begien bistakoa dirudi elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzea eta murriztea suspertuko duen arau bat eduki behar dela. Arau horren helburua izango da, hain justu, elikagai-galerak eta -xahuketa geldiaraztea eta saihestea, baita fenomeno horrek sortzen dituen eragin kaltegarriak ere. Era berean, arauaren xedea izango da elikagai horien aprobetxamendua eta balorizazioa bultzatzea elikakatean zehar. Helburu hori lortzeko, alegia, hornidura-kateko maila guztiak efizienteak izan daitezen, beharrezkoa da gizarteko sektore guztiek parte hartzea, eta ezinbestekoa da hura egiten eta praktikan jartzen inplikatzeko administrazio publikoak, elikakatearekin lotutako enpresak eta operadoreak, elkarteak, hirugarren sektoreko antolakundeak eta elikagaien bankuak, behartsuei laguntza ematen jarduten duten heinean, bai eta gizarte osoak ere, oro har. Horrela bakarrik lortuko da elikagai-galerak eta -xahuketa murriztea hornidura-katearen eremu guztietan.

Elikagai-galeren eta -xahuketaren aurka borrokatzea funtsezkoa da jasangarritasuna lortzeko. Elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeak eta murrizteak elikakateko maila guztientzat sortzen dituzte onurak, eta elikagai-soberakinak berreskuratzeak eta banatzeak garrantzi handia dute dimentsio sozialari erreparaturik. Adierazitako esparruan, hauek dira elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko, hondakin horien sorkuntzaren eragin kaltegarrien gaineko eta elikakatean zehar aprobetxatzeko eta balorizatzeko lege honen helburuak: bioekonomia zirkularra suspertzea; elikagaien xahuketa gutxitzea, eta, horretarako, nekazaritza-ekoizpenerako baliabideak modu efizientean kudeatzea eta baliabide hidrikoak hobeto kudeatzea, galdu edo xahutu daitezkeen eta elikadurarako onura argiak ekar ditzaketen nekazaritzako soberakinak saihesteko; ekoizpen, transformazio, banaketa, ostalaritza eta jatetxeetako agenteak sentibilizatzea eta informatzea, baita kontsumitzaileak eta, oro har, herritarrak ere; elikagaiak dohaintzan eman daitezen suspertzea, elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea bermatuta; elikagai-soberakinen berreskurapena eta banaketa sustatzea elkartasun sozialerako, eta, ildo horretan, soberakinok lehentasunez giza erabilerarako esleitzea, bai eta ikerketa, berrikuntza eta kontzientziazio-jarduerak faboratzea ere, elikagai-xahuketa murriztearekin loturiko eremuan.

Elikagai-xahuketa prebenitzeak elikadura-sistemaren efizientzia hobetzen laguntzen du, eta faboratu egiten du bioekonomia zirkularra, baita baliabideen eta azpiproduktuen aprobetxamendu integrala ere.

Legearen xedeen artean, nabarmentzekoa da Garapen Jasangarriarako 2030 Agendako ekoizpen eta kontsumo arduratsuari buruzko helburuari erantzutearena. Horretarako, besteak beste, sustatuko da elikagai-hondakinen sorrera murriztea ekoizpen primarioan, transformazioan eta fabrikazioan, txikizkako salmentan eta elikagaiak banatzeko beste bide-mota batzuetan, jatetxeetan eta janari-zerbitzuetan, bai eta etxeetan ere, halako moldez non 2030erako biztanle bakoitzeko elikagai-

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 11

hondakinak, 2020arekin alderatuta, % 50 murriztuko baitira txikizkako salmentaren eta kontsumoaren mailan, eta elikagaien galerak % 20 murriztuko baitira ekoizpen- eta hornidura-kateetan zehar. Horrenbestez, garrantzi eta gaurkotasun handieneko ekimena da, elikadura-sistema jasangarriagoak lortzeko egiten duen ekarpen garbiagatik, aurrera egiten baitu garapen jasangarrirako helburuak (GJH) lortzeko bidean, eta, bereziki 2. GJHa (Goserik eza), 3. GJHa (Osasuna eta ongizatea), 11. GJHa (Hiri eta erkidego jasangarriak), 12. GJHa (Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriak bermatzea) eta 13. GJHa (Klima babesteko ekintza).

Era berean, nabarmendu behar da bai Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratuak, bai Epe Luzeko Deskarbonizazio Estrategiak (2050), bai Klima Aldaketara Moldatzeko Plan Nazionalak (2021–2030) jasotzen dituztela elikagai-xahuketa murrizteko neurriak eta ekintza-ildoak, eta lege honen bidez aktibatu eta bizkortu egingo direla neurriok eta ekintza-arlook. Hala, lagungarria izango da Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legean jasotako Espainiako helburu klimatikoak lortzeko. Hori guztia bat dator Espainia Zirkularra 2030 Ekonomia Zirkularreko Espainiako Estrategiarekin eta horren barneko 2021–2023 aldirako Ekonomia Zirkularreko I. Ekintza Planarekin, EBren 2020ko Europa garbiago eta lehiakorrago baterako ekonomia zirkularrerako ekintza-planaren esparruan, zeinak elikagai-hondakinei buruzko 2.2 apartatua hiru neurri jasotzen baititu, eta ingurumari horretako balio-kate erabakigarrietako bat irizten dio honi: «elikagaiak, ura eta nutrienteak». Hauexek dira, zehazki, hiru neurriak: elikagai-xahuketa murrizteko araugintza-garapenak, lege hau bera, kasurako; elikagai-xahuketari buruzko jakintza sortzea, hala nola etxeetako xahuketaren kuantifikazio-panela; eta banaketan, jatetxeetan eta ostalaritzan elikagai-xahuketa murriztea borondatezko akordio eta planen bidez, zeinetan zehaztuko baitira elikagai-xahuketa murrizteko neurriak, jardunbide egokiak eta helburuak.

Arauak premisa gisa hartzen du ez dela nahikoa kontzientziazio-neurriak izatea, eta, aitzitik, beharrezkoa dela erreforma estruktural mamitsuak egitea elikagai-produktuak egiteko, transformatzeko eta hornitzeko katean. Erreforma horiek babes finantzarioa izan behar dute, baita botere publikoen bultzada irmoa ere, betiere egungo errealitateak exijitzen duen transformazio erabakigarriari ekin ahal izateko.

IV

Esparru horretan onetsi egiten da lege hau, zeinak 23 artikulua baitauzka, sei kapitulutan egituratuta.

I. kapituluak («Xedapen orokorrak») legearen xedea jasotzen du, zeina baita, funtsean, elikakateko agente guztiek elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzea eta murriztea, eta legearen aplikazio-eremua ere jasotzen du, zeinak arauaren aitzinirudia egiten baitu: agenteek eurek egiten dituzten jarduerak —elikagaien ekoizpen, transformazio eta banaketan dihardutela ere—, bai eta ostalaritzako eta jatetxeetako agenteek, dohaintzan jasotako elikagaiak banatzen jarduten duten entitate eta elkarteek, eta administrazio publikoek egiten dituzten jarduerak.

Arauari aplikatzekoak zaizkion kontzeptuen definizioak finkatzeaz gainera, printzipio gidariak arautzen dira, hala nola baliabideen erabilera efizientea izatea edo elikagaiak dohaintzan ematera suspertzea; ildo horretan, bereziki azpimarratzen da administrazio publikoen arteko lankidetzak.

Lege honen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira fruta eta barazkien programa operatiboetako krisiak kudeatzeko neurrien ondorioz produktuak erretiratzeko jarduerak, Kanarietako Nekazaritza Ekoizpenei Laguntzeko Europar Batasuneko Programaren (POSEI) esparruan bananak erretiratzekoak, edo, Europar Batasuneko legediaren barnean, krisiak prebenitzeko eta kudeatzeko edo merkatua arautzeko mekanismoren baten babesean hartutako bestelako neurriak; izan ere, ekoizleen antolakundeek, krisia kudeatzeko neurrien artean, badituzte produktua merkatutik erretiratzeko mekanismoak, ia bat datozenak lege honek ezartzen dituen helburuekin.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 12

Beste alde batetik, erretiratze horiek behartsuei dohainik banatzera bideratzen dira nagusiki —azken urtean, erretiratutako bolumenaren % 44 baino gehiago bideratu da xede horretara—; animalia-elikadurara % 36 baino gehiago bideratzen da, eta biodegradaziora eta konpostatzera, azkenik, % 19 baino gutxiago. Horretaz gainera, fruta- eta barazki-sektorearen krisia kudeatzeko neurriak txertatzeak eragin lezake desiragarria den oreka hori aldatzea.

Funtsezko aspektuetako bat agenteek arlo horretan aplikatu behar dituzten lehentasunen hierarkia bera da, aprobetxamendu optimoa bermatzeko, hondakinei buruzko araudiak dioenaren arabera, betiere prebentzioa eta giza elikadurarako erabiltzea lehenetsita, eta, hori ezinezkoa izanez gero, kontuan izan beharreko lehentasun-segida finkatuta, hala nola hondakinok balorizatzea edo azpiproduktu gisa erabiltzea.

II. kapituluak elikakateko agenteen betebeharrak arautzen ditu, eta agente guztiek kontuan izan beharko dituzten arazoen zerrenda bat ezartzen du, beren jardueretan oinarri komun gisa baliatzeko. Zerrenda horretako aspektu zehatz batzuk *ratione materiae* sistemaren lotura perfektionatzeko jardura jakinetara bideratutako betebeharrekin osatzen dira.

Konparazio baterako, agente guztientzako betebeharrak horizontal gisa nabarmendu daiteke elikagai-galerei eta -xahuketari lege honen lehentasunen hierarkia aplikatzea, hots, elikakatean haien kontrolpean dagoen edozein mailatan sortzen direnei, neurri egokiak hartzea arau-esparru espezifikoan aplikatzeko, manipulazio-instalazio egokiak izatea, edo langileak eta boluntarioak prestatzea eta sentsibilizatzea. Xedapen sorta horrekin batera, arauak administrazio publikoentzako mandatu espezifikoak jasotzen ditu, interes orokorraren bermatzaile diren aldetik, hala nola zabalkunde- eta sustapen-kanpainak egitea elikagaien kontsumo arduratsua suspertzeko eta elikagai-galeren prebentzioa eta murrizketa sustatzeko.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da arau honek ez duela izan nahi herritar kalteberenen oinarritzko beharrianak asetzeko modu bakarra; izan ere, elikagaiak alferrik ez galtzeko banatzea aparteko eta ezohiko baliabide bat da, interes orokorreko zenbait helbururi erantzuten diena. Alabaina, beti bermatu behar da asetzen direla oinarritzko beharrianak, eta horretarako formula normalizatuak erabiliko dira, zeinek errespetatzen baitute pertsonen duintasuna eta pertsonoi ahalbidetzen baitiete beren burua elikatzeko duten moduari buruzko erabakiak hartzen. Alde horretatik, gogoratu behar da elikadura giza eskubide bat dela, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasoa.

III. kapituluak administrazio publikoen gomendioak arautzen ditu, azken kontsumitzaileari salmentak egiten dizkieten enpresekin eta ostalaritzako enpresekin batera, eta agente guztiek kontuan izan beharreko arazoen zerrenda bat ezartzen du, haien guztien jardueretan oinarri komun gisa baliatzeko. Suspertu beharreko neurrien artean nabarmendu daitezke, esate baterako, xede sozialeko dohaintza sustatzea, eta kontsumitzaileei prestakuntza eta sentsibilizazioa ematea elikagai-xahuketaren gainean.

IV. kapituluak kontsumitzeko data lehenetsiak arrazionalizatzea du ardatz, elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzen eta murrizten laguntzeko. Hori horrela, legeak mandatu bat jasotzen du kontsumitzeko data lehenetsiak elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzera eta murriztera egokitzea suspertzeko, betiere Europako araudiaren barruan.

V. kapituluak tresnak xedatzen ditu elikagai-galeren eta -xahuketaren murrizketa eta prebentzioa suspertzeko eta kontrolatzeko. Tresna horien artean, autorregulazioa suspertzeko neurriak jasotzen dira, eta politika publiko hori aplikatzeko eta kontrolatzeko sistema ere agintzen da, barnean harturik elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko plan estrategiko bat. Plan estrategiko horrek alderdi hauek jasoko ditu: elikagai-xahuketaren inguruko politikaren estrategia orokorra; autonomia-erkidegoetako programek bete beharreko gutxienezko helburuak ere; Elikagai-galerak eta -xahuketa Kontrolatzeko Plan Nazionala, gutxienez lau urtean behin berrikusiko dena, eta arlo horretan eskumena duten administrazioek egin beharreko kontrol-atazen helburu orokorrak eta lehentasunak jasoko dituen; eta Elikagai-galerak eta -xahuketa Kontrolatzeko Plan Nazionala egikaritzearen emaitza jasotzen duen urteko txostena.

Ildo horretan, funtsezkoa da administrazio-maila guztien artean lan koordinatua ziurtatzea, ahalbidetuko dituen kontrol eraginkorra egitea, babes erreal eta partekatua eskaintzea eta jakintza mardula izatea, eta maila anitzeko gobernantza diseinatzea —egokia izango dena eskumen ugari gurutzatzen diren eremu horretarako—, kontuan izanik xedea izan behar dela lidergo partekatuan eta ahalegin kooperatiboetan oinarritutako elikagai-xahuketaren gaineko politika aplikatzea. Hori horrela, Plan Estrategikoaren esparruan, autonomia-erkidegoetako eta, kasuaren arabera, tokiko programak eta kontrolaren arloko ataza betearazleak onetsiko dira. Horiek sistematikoki eta behar adinako maiztasunez gauzatuko dira, eta Elikagai-galerak eta -xahuketa Kontrolatzeko Plan Nazionalan txertatuko. Azkenik, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak txosten bat egingo du urtero autonomia-erkidegoetako informazioan oinarrituta, betiere administrazio publiko eskudunek garatutako Elikagai-galerak eta -xahuketa Kontrolatzeko Plan Nazionala egikaritzeak izaniko emaitza jasotzeko. Koordinazio hori gauzatzeko, zenbait politika eta neurri integratzen dira haietan guztietan komuna den zeharkako helmuga bat lortzeko; hots, elikagai-xahuketa gutxitzea, guztia ere Europako Parlamentuaren 2012ko urtarrilaren 19ko Ebazpenari erantzunez, zeinak eskatu baitzuen diseina zedila maila anitzeko gobernantza egoki bat eskumenak erruz gurutzatzen diren eremu horretarako, kontuan izanik xedea izan behar duela lidergo partekatuan eta ahalegin kooperatiboetan oinarritutako elikagai-xahuketaren gaineko politika aplikatzea.

VI. kapituluak, azkenik, zehapen-araubidea jasotzen du, eta, arlo horretako arau-haustek tipifikatzen eta oinarritzko zehapenak jasotzen ditu; hala, tarte zabal bat ziurtatzen da autonomia-erkidegoetako arauak erabaki dezaten zein izango den arau-hausteen eta zehapenen sistema, betiere arrazoizko gutxieneko araugintza komuna ziurtatuko duen oinarritzko esparru baten barruan.

Legearen amaierako zatiak, osatzeko, zortzi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapenetako hogeitaz jasotzen ditu. Horietan, eskumen-tituluari, arau-gaikuntzei eta indarrean jartzeari buruzko aurreikuspenak jasotzen dira, bai eta elikagai-galera, -xahuketa eta -hondakinak zenbatesteko metodologia koordinatuari buruzkoak ere.

Araua, halaber, aldaketa bat egiten dio Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeari —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora—, helburu gisa harturik baldintza bat txertatzea instituzio publikoetako elikadura-zerbitzuak kontratatzeke agirietan; alegia, hornitzaileak jardunbide egokiak izan behar ditu elikagai-xahuketaren ikuspegitik eta lege honetan jasotakoa betetzearen inguruan.

10/2009 Legea, urriaren 20koa, nekazaritzako elikagaien eremuan Estatuko kontsulta-organoak sortzekoa eta nekazaritzako lanbide-antolakundeen ordezkariaren oinarriak zehaztekoa, funtsezkoa izan zen onetsi zuten garaian sistema objektibo bat ezartzeko, betiere estatu-mailako nekazaritza-antolakundeen ordezkari zehazte aldera. Funtsezko urratsa izan zen, ordezkari zehazteko sistema bat ezarri baitzuen, eskuarki ontzat emaniko irizpideetan oinarrituta.

Urriaren 20ko 10/2009 Legeak exijitzen zuen gutxienez botoen ehuneko hamabost lortu behar zela autonomia-erkidegoen organo eta entitate aholku-emaile autonomikoetan parte hartzeko egindako hauteskunde-prozesu guztietan, eta gutxienez bederatzi autonomia-erkidegoetako hauteskunde-prozesuetan parte hartu behar zela, edo, bestela, gutxienez hamar autonomia-erkidegotan halakotzat hartuta egon behar zela.

Nekazaritzako lanbide-antolakundeen ordezkari zehazteko prozedura arautzeko eta Nekazaritza Kontseilua sortzeko uztailaren 9ko 12/2014 Legeak, bestalde, kontsulta publikorako mekanismo bat ezarri zuen, zeina baitzen zuzeneko eta aldiberekoa lurralde nazional osoan, betiere izaera orokorreko eta eremu nazionalako nekazaritza-antolakunde profesionalen ordezkari zehazteko.

Uztailaren 9ko 12/2014 Legeak ezarritako prozedura orohartzailea da, eta haren aplikazio praktikoak zailtasunak ditu ikuspegi materialetik, ekonomikotik eta are teleologikotik ere. Ildo horretan, aski da aipatzea giza bitartekoen eta bitarteko materialen

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 14

hedapen handia beharko litzatekeela, batez ere kontuan izanik aurrez aurre parte hartzea aurreikusten dela lurralde nazional osoan banatutako mahaietan, ikusirik kostu ekonomiko handia dutela, desberdinak direla Estatuko eta autonomia-erkidegoetako hauteskunde-prozesuak —zentsuan eta prozesuen konfigurazioan dira desberdinak, eta horrek emaitza desberdinak ekar litzake lurralde-eremu berean—, eta kontsultak bikoiztuko liratekeela autonomia-erkidego jakin batzuetan.

Nolanahi ere, nekazaritzako lanbide-antolakundeen ordezkaritza sistema horren arabera zehazteko, erregelamendu bidez garatu behar zen ondoren, aipatutako legearen azken xedapenetako hirugarrenak zioenari jarraikiz. Horregatik, lege horrek ezarritako ordezkaritza-sistema ez da praktikan jarri bera onetsi eta hamarkada batera.

Nekazaritzako lanbide-antolakundeen ordezkaritza, aldi baterako bada ere, aitortzea aurreko legearen babesean lortu zutenen esku dago oraindik ere —hots, 10/2009 Legea, urriaren 20koa, nekazaritzako elikagaien eremuan Estatuko kontsulta-organoak sortzekoa eta nekazaritzako lanbide-antolakundeen ordezkartzaren oinarriak zehaztekoa—.

Berez urriaren 20ko 10/2009 Legeak 6. artikuluan ordezkartzaren bost urteko ebaluazioa xedatu bazuen ere, ebaluazio hori eten egin zen 2014ko uztailaren 30ean, uztailaren 9ko 12/2014 Legea indarrean jarri zenean; ondorioz, ezinezko bilakatu zen nekazaritza-antolakundeen ordezkaritza *de facto* eguneratzea denboran zehar eboluzionatu zuen errealitatea islatzeko, zeren indarra galdu baitzuen aitortze hori arautzen zuen arauak.

Ondorioz, uztailaren 9ko 12/2014 Legean aurreikusitako moduan kontsulta bat deitzeko zailtasun handiak ageri direla egiaztatu ondotik, egokitze jotzen da eremu nazionaleko nekazaritzako lanbide-antolakundeen ordezkaritza-erregela aldatzea eta ordezkaritza hori benetan aintzat hartzen dela bermatuko duen sistema berri bat ezartzea.

Adostasun-espíritu hura dela bide, eta prozesuari beharrezko gizarte-legitimitatea emateko —eta, hala, nekazaritzako lanbide-antolakundeek onar dezaten eta antolakunde horiek efizientziaz gauzatu dezaten botere publikoekiko bitartekaritza- eta solaskidetz-eginkizuna—, lege honek prozedura bat ezartzen du izaera orokorreko eta estatu-mailako ordezkaritza handieneko nekazaritzako lanbide-antolakundeak zehazteko.

Prozedura horretan zenbait betekizun jaso dira, parte har dezaketen entitateak apirilaren 1eko 19/1977 Legearen babesean eratu eta aitortutako izaera orokorreko eta estatu-mailako ordezkaritza handieneko nekazaritzako lanbide-antolakundeak direla ziurtatzeko, baldin eta beren estatutuetako xedeen artean jasotzen badute nekazaritzaren interes orokorrak defendatzea eta lurralde-ezarpen handia badute.

Beste alde batetik, prozedura bat ezartzen da ordezkaritza handienekoak ote diren zehazteko eta estatu-eremuan duten ordezkaritza definitzeko, autonomia-erkidegoek emandako egiaztapenetan soilik oinarritua; egiaztapen hori kontuan hartu beharko dute egindako hauteskunde-prozesuek edo, halakorik ezean, autonomia-erkidegoek arauz aitortutako ordezkaritza zehazteko beste sistema batzuek; hala izan ezean, antolakunde horiek autonomia-erkidegoetan duten ezarpen-egoera egiaztatu beharko dute.

Horri guztiari esker, nekazaritza-ordezkaritza zehaztu ahal izango da, autonomia-erkidegoen eta nekazaritzako lanbide-antolakundeen errealitate guztiak kontuan hartuta; hala, bermaturik geldituko da sektorearen errealitatearekin bat datorren ordezkaritza.

Estatu-eremuan ordezkaritza handiena duten antolakundeek ordezkaritza instituzionaleko eginkizunak beteko dituzte beren interesak Estatuko administrazio orokorraren eta Estatuko beste entitate edo organismo batzuen aurrean defendatzeko, eta halakotzat hartuak izateak berekin dituen eskubideak izango dituzte. Arau horrek, zehazki, Nekazaritza Kontseiluaren funtsezko baldintzak arautzen ditu, kontuan izanik kontseilu hori dela Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari atxikitako kide anitzeko organo aholku-emalea, zeinaren helburua baita Estatuko administrazio orokorrari aholkularitza ematea nekazaritza- eta landa-arloko interes orokorreko arazoetan. Arau hori erregelamendu bidez garatuko da. Arautzen ditu, orobat, antolakundeek Estatuko administrazio orokorraren partaidetza-organoetan duten presentziarekin lotutako beste aspektu batzuk, bai eta emango diren zuzeneko laguntzak eta haien banaketa ere, ordezkaritza handienari jarraikiz.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 15

V

Proiektua izapidetzean, egin dira jendaurreko entzunaldia, informazioa eta parte-hartzea, eta egin zaie kontsulta ukituriko autonomia-erkidegoei, baita ukituriko sektoreen interesak ordezkatzeko dituzten entitateei ere.

Arau honen testuak jarraitu dio Europako Batzordearen komunikazio-prozedurari, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko irailaren 9ko (EB) 2015/1535 Zuzentarauan aurreikusitakoaren arabera —zeinaren bidez ezartzen baita araudi teknikoaren eta informazioaren gizarteko zerbitzuei buruzko erregelen arloko informazio-prozedura bat—, bai eta uztailaren 31ko 1337/1999 Errege Dekretuaren arabera ere —zeinaren bidez arautzen baita informazioaren gizarteko zerbitzuei buruzko arau eta arautegi teknikoaren eta erregelamenduen arloko informazioa bidaltzea—.

Arau hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 13. erregelan xedatutakoaren babesean emana da, zeinak Estatuari eratzekitzen baitio jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gaineko eskumena, eta kontuan hartu da, berebat, 149.1.23 artikuluan xedatutakoa ere, zeinak Estatuari eratzekitzen baitio ingurumena babesteari buruzko oinarritzko legediaren gaineko eskumena.

Arau honetan jasotzen den erregulazioak betetzen ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen diren printzipioak. Hori horrela, premia- eta eraginkortasun-printzipioen arabera, Europar Batasuneko araudia eta Espainian egiten diren nazioarteko ekimenak koherentziaz aplikatzeko beharrianak justifikatzen du proiektua, eta hori lortzeko tresnarik egokiena da; izan ere, beharrezkoa da erregulazioa oinarritzko arau batean jasotzea, eta beharrezkoa da helburu hau betetzea: elikakateko agente guztiek askotariko neurriak hartzea elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko, kontuan izanik fenomeno horren ondorio negatiboak. Betetzen da proportzionaltasun-printzipioa, eta erregulazioa araudi hori betetzeko ezinbestekoa den gutxienez mugatzen da; beraz, proposamenak erregulazioa jakin bat du, arauarekin bete nahi den beharrianari erantzuteko ezinbestekoa dena, eta aldez aurretik egiaztatu beharko da ez dagoela beste neurririk, eskubide gutxiago murrizten duenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago ezartzen dienik xedea lortzeko. Segurtasun juridikoaren printzipioa betetzat jotzen da xedapen orokor batean aurreikuspen berriak ezartzen direnean, eta, gainera, hori koherentea da Espainiako eta Europako gainerako ordenamendu juridikoarekin. Betetzen da, berebat, gardentasun-printzipioa, araua egitean kontsulta egin baitzaie autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei, bai eta ukituriko sektoreak ordezkatzeko dituzten entitateei ere, proiektuaren entzunaldi publikoaren bidez; gainera, aukera eman da indarrean dagoen araudia eta hura egiteko prozesuaren dokumentuak erraz, modu unibertsalean eta eguneratuan iristeko. Horrekin batera, argi eta garbi definitu dira arau-ekimenaren helburuak eta justifikatu egin dira zioen azalpenean, eta ahalbidetu da balizko hartzaileek hura prestatzean parte-hartze aktiboa izatea. Efizientzia-printzipioari dagokionez, azkenik, ez da ezartzen beste administrazio-zamarik; esku-hartze publikoa, berriz, ezinbesteko aspektuetara mugatzen da eta soluzio orokorrenaren aldeko hautua egiten da.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Legearen xedea eta helburuak.*

1. Lege honen xedea da elikakateko agente guztiek prebenitzea eta murriztea elikagai-galerak eta -xahuketa, eta, bide horretan, soluzioetarako lehentasun-hierarkia ezartzea eta 2030 Agendako ekoizpen eta kontsumo arduratsuko elikadura-sistemaren helburuari erantzutea.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 16

2. Lege honen helburu espezifikokoak dira:

- a) Elikagai-galerak eta -xahuketa gutxitzea nekazaritzako elikagaien katean, eta, horretarako, baliabideak modu efizienteagoan kudeatzea eta, bide batez, ekonomia zirkularra sustatzea.
- b) Argi eta garbi definitzea zer diren elikagai-galerak eta -xahuketa, modu integralean nekazaritzako elikagaien kate osoan eta kate horren mailetako bakoitzean.
- c) Elikagaien dohaintza eta birbanaketa suspertzea, eta, hala, elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea bermatzea.
- d) Elikagai-galeren eta -xahuketaren kausak eta ondorioak errotik aztertzea, eta, ildo horretan, ikerketa eta berrikuntza faboratzea elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzearen eta murriztearen eremuan.
- e) Aurrera egitea gure elikadura-sistemako kate-mailetan sortzen diren elikagai-xahuketa neurtzeko modu kuantitatibo eta kualitatibo zorrotzean, aldian-aldian eguneratuta eta metodologia komun batean oinarriturik, betiere udalerrien eta autonomia-erkidegoen arteko azterlan konparatiboak egin ahal izateko, bai eta Europar Batasunaren eremukoak eta nazioartekoak ere. Autonomia-erkidegoek beren araudian aurreikusi ahalko dute agintaritza eskudunek beren lurralde-eremuan neurketa horiek egin behar dituztela.
- f) Oinarriak ezartzea gizarte-ekimeneko entitateek, elikagaiak dohaintzan emateko banaketa-zerbitzuak eskaintzen dituzten irabazi-asmorik gabeko beste zenbait antolakundek eta inplikaturako gainerako agenteek beharrezkoak diren bitarteko eta baliabide publikoak jaso ahal izan ditzaten jardura horren logistika ordaintzeko, barnean harturik garraioa, transformazioa eta biltegiatzea, merkaturatu gabeko elikagaiak dohaintza bidez aprobetxatu ahal izateko.
- g) Koherentzia txertatzea gure ordenamendu juridikoan, oro har, betiere elikagai-galerak eta -xahuketa murrizteko.
- h) 2030 Agendan ekoizpen eta kontsumo arduratsuari buruz jasotako helburuari erantzutea, eta elikagai-hondakinen sorrera murriztea ekoizpen primarioan, transformazioan eta fabrikazioan, txikizkako salmentan eta elikagaien beste banaketa-mota batzuetan, jatetxeetan eta janari-zerbitzuetan, bai eta etxeetan ere, halako moldez non 2030erako biztanle bakoitzeko elikagai-hondakinak, 2020arekin alderatuta, % 50 murriztuko baitira txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean, eta elikagaien galerak % 20 murriztuko baitira ekoizpen- eta hornidura-kateetan zehar, Nazio Batuen garapen jasangarriko helburuak lortzen laguntzeko.
- i) Elikakateko agente guztien artean elikagai-galerei eta -xahuketari buruzko kontuak ematera sustatzea, bai eta prebentzio- eta murrizketa-prozesuei buruzko ikaskuntza bultzatzea ere.
- j) Berotegi-efektuko gas-emisioak eta bestelako kutsatzaileak murriztea.
- k) Kateko agenteek kontuan izan behar dituzten lehentasunen hierarkia ezartzea elikadura-galerak eta -xahuketa kudeatzeko garaian, ezinezkoa izan bada haien sorrera saihestea.
- l) Sentsibilizazioa, prestakuntza eta informazioa sustatzea ekoizpenean, transformazioan, banaketan, ostalaritzan eta jatetxeetan diharduten agenteen artean, baita kontsumitzaileen eta herritarren artean ere, oro har, eta kontzientziazio-jarduerak faboratzea elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko eta elikagaiak eta haien hondakinak behar bezala kudeatzeko, hargatik eragotzi gabe elikagaien segurtasun-, kalitate- eta higiene-bermeak.

3. Legearen helburuak lortzeko estrategiak dira:

- a) Elikakateko agenteak eta elikagai-zerbitzuen beste hornitzaile batzuk, kontsumitzaileak eta, oro har, herritarrak sentsibilizatzea eta informatzea.
- b) Elikagaiak dohaintzan emateko banaketa suspertzea, eta elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea bermatzea.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 17

c) Elikagai-soberakinen berreskuratzea eta banaketa sustatzea, gizarte-elkartasunerako dohaintzak egiteko, eta, ildo horretan, giza kontsumorako bideratzea lehentasunez.

d) Ikerketa eta berrikuntza ez ezik, kontzientziazio-jarduerak ere faboratzea elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzearen eta murriztearen eremuan.

2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

Lege hau jarduera hauei aplikatuko zaie: elikakateko agenteek —elikagaien ekoizpenean, transformazioan eta banaketan dihardutela ere—, ostalaritzako eta jatetxeetako agenteek, dohaintzan jasotako elikagaiak banatzen diharduten entitate eta elkarteek eta administrazio publikoak Espainiako lurraldean egiten dituzten jarduerai, hargatik eragotzi gabe Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen xedapenak, ez eta hondakinen edo osasunaren arloan aplikatzekoa den araudia ere.

Lege honen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira fruta eta barazkien programa operatiboetako krisiak kudeatzeko neurrien ondorioz produktuak erretiratzeko jarduerak, Kanarietako Nekazaritza Ekoizpenei Laguntzeko Europar Batasuneko Programaren (POSEI) esparruan bananak erretiratzekoak, edo, Europar Batasuneko legedian krisiak prebenitzeko eta kudeatzeko edo merkatua arautzeko aurreikusitako mekanismoetako baten babesean hartutako bestelako neurriak.

3. artikulua. *Definizioak.*

Apirilaren 8ko 7/2022 Legean jasotakoez gainera, definizio hauek ematen dira lege honen ondoretarako:

a) Elikakateko agenteak: lehen sektoreko operadoreak, barnean harturik kooperatibak eta gainerako elkarte-entitateak, elikagaiak egiteko, fabrikatzeko edo banatzeko entitate edo enpresak, txikizkako saltokiak, ostalaritzaren edo jatetxeen sektoreko enpresak eta elikagai-zerbitzuen beste hornitzaile batzuk, gizarte-ekintzako eta gizarte-ekimeneko hirugarren sektoreko entitateak eta dohaintzan jasotako elikagaiak banatzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten irabazi-asmorik gabeko beste antolakunde batzuk, bai eta administrazio publikoak ere.

b) Elikagaia edo elikagai-produktua: Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko (EE) 178/2002 Erregelamenduaren 2. artikuluan jasotako definizioa aplikatuko da; izan ere, erregelamendu horren bidez elikadura-legediaren betekizun orokorrak eta printzipioak ezartzen dira, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortzen da, eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak finkatzen dira.

c) Elikagai-xahuketa: gizakiak kontsumitzera bideratua den eta azkenean hondakin gisa baztertzen den elikagai-zatia.

d) Elikagai-galerak: edozein arrazoiengatik ustategian bertan gelditzen diren nekazaritzako produktuak eta elikagai-produktuak, dela lurzorura bueltatzeko, dela *in situ* konposta egiteko, baldin eta produktu horien azken helburua giza elikadura bazen.

e) Elikagai-zerbitzuen beste hornitzaile batzuk: osasun-zentroak, hezkuntza-zentroak, espetxeak, atzerritarrak barneratzeko zentroak, gizarte-zerbitzuen egoitzak, eta, oro har, cateringa edo jantoki-zerbitzua eskaintzen duten establezimendu iraunkor guztiak.

f) Mikroenpresak: hamar langile baino gutxiago dituzten enpresak, baldin eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra bi milioi eurotik gorakoa badute.

g) Elikagai-hondakinak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko (EE) 178/2002 Erregelamenduaren 2. artikuluan definitzen diren eta hondakin bihurtu diren elikagai guztiak, hau da, edukitzaileak baztertu dituenak edo bota nahi dituenak edo bota behar dituenak, betiere apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2.a) artikulua adierazten duenaren arabera.

h) Buruxkatzea edo txordoka biltzea: uzta nagusiaren ondoren soroan geratu diren elikagaiak edo ereinda egon baina bildu ez diren uztak biltzea, ustategiaren titularraren

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 18

edo titularren baimenarekin, irabazi-asmorik gabeko jarduera osagarri gisa eta elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzera bideratuta.

4. artikulua. *Printzipio gidariak.*

Printzipio hauen arabera eraenduko dira elikakateko agente guztiek elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko egiten dituzten jarduerak:

a) Elikakatearen natura-baliabideak, gizarte-baliabideak, baliabide ekonomikoak eta ekoizpen-baliabideak efizientziaz erabiltzea; ildo horretan, ez lehenestea alderdi ekonomikoa soilik, eta gure elikadura-sistemaren jasangarritasuna zaintzea.

b) Prebentzioa, eta, alde horretatik, askotariko neurriak hartzea elikagai bat galtzea edo xahutzea saihesteko, elikagai-galerak eta -xahuketa berrerabiltzearen bidez murrizteko, eta hondakin gutxiago sortzeko eta emisioek ingurumenean eta giza osasunean duten eragina murrizteko.

c) Lehentasun-hierarkia, lege honetan eta hondakinak arautzen dituen araudian adierazitakoaren arabera, zein bere esparru arautzailearen barruan.

d) Elikagaiak giza kontsumorako eta beste birbanaketa-mota batzuetarako dohaintzan eman daitezen suspertzea, eta horri ematea lehentasuna beste erabilera batzuei eman beharrean —hala nola animalia-elikadurari eta elikagaiak ez diren produktu bihurtzeari—, lege honen lehentasun-hierarkian eta hondakinak arautzen dituen araudian adierazitakoaren arabera, zein bere esparru arautzailearen barruan.

e) Elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzearen inguruko hezkuntza eta kontzientziazioa suspertzea herritarren artean, oro har.

f) Behar den segurtasun juridikoa sortzea agente dohaintza-emaileen eta -hartzaileen arteko harremanetan, betiere dohaintza-atazak 7. artikuluan ezarritako lankidetza-hitzaizen edo -akordioen bidez egiteko.

Edonola ere, ingurumen-kalteen arduradunek ordaindu behar dituzte horien kostuak, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioari jarraikiz, Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legeak araututakoaren arabera. Izan ere, lege horrek esanbidez arautzen du operadoreek ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko duten erantzukizuna, betiere Konstituzioaren 45. artikuluari eta prebentzio-printzipioei jarraikiz, bai eta «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioari ere. Gainerakoan, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 11. artikuluan araututakoaren arabera aplikatuko da printzipio hori hondakinen politikan, betiere sortzen diren hondakinak kudeatzeko kostuari dagokionez. Zehatzak izateko, helburua da kutsatzaileak kutsadura kontrolatzea, murriztea eta prebenitzea, bai eta justiziarako, aplikaziorako eta ingurumen- eta osasun-kalteak konpentsatzeko lege-baliabideak ematea ere, betiere kontuan izanik txanpon beraren bi aldeak direla, batetik, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioa eta, bestetik, zuhertasun-printzipioa.

5. artikulua. *Elikakateko agenteen lehentasun-hierarkia.*

1. Elikakateko agenteek ahal dituzten neurri guztiak aplikatuko dituzte, eta haien lehenengo betebeharra izango da elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzea; horretarako, ekoizpen-, erosketa- eta kudeaketa-irizpide arrazionalak txertatuko dituzte, soberakinak sortzea eragozten duten premia zehatzetan oinarrituta.

Era berean, lehentasun-hierarkia honetara moldatu behar dituzte beren jarduketak, apirilaren 8ko 7/2022 Legeak elikagai-hondakineterako 19. artikuluan ezarritakoaren arabera:

a) Lehenik eta behin, elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzera joko da, eta transformatu egingo dira saldu ez diren baina giza kontsumorako egokiak izaten jarraitzen duten nekazaritza-produktuak edo elikagaiak, betiere giza kontsumorako beste produktu alternatibo batzuk sortzeko.

b) Soberakinak sortzea ezin izan bada prebenitu, lehentasun-hurrenkera honi jarraituko zaio:

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 19

1) Elikagaiak dohaintzan emango dira eta bestelako birbanaketa-mota batzuk baliatuko dira, giza kontsumora bideratuta.

2) Halakorik ezean, animalia-elikadurarako eta pentsuak fabrikatzeko erabiliko dira elikagaiak, zein bere esparru arautzailearen barruan, eta, bereziki, kontuan harturik otsailaren 20ko APM 189/2018 Ministro Agindua, zeinaren bidez zehazten baita noiz jotzen diren azpiproduktutzat animalia-elikadurara bideratutako nekazaritzako elikagaien industriatik datozen ekoizpen-hondakinak apirilaren 8ko 7/2022 Legeak zehazten duenari jarraikiz.

3) Aurreko guztiak posible ez direnean, azpiproduktu gisa erabiliko dira beste industria batean.

c) Eta, azken buruan, hondakin gisa, birziklatzeko, eta, bereziki, kalitate goreneko konposta eta digeritua lortzeko, zeina lurzoruetan erabiliko baita, horietan onura eragitearren eta, aurreko hori guztia ezinezkoa bada, balorizazio energetikorako, biogasa edo erregaiak lortzearen bidez. Kasu horretan, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

2. Beti aplikatuko da 1. apartatuan zehaztutako lehentasun-hierarkia; hala ere, aukera egon liteke elikakateko agenteen jarduketak beren jardueraren berezko ezaugarrietara edo sektorearen ezaugarri espezifikoetara moldatzeko, edo emaitza hobea lortzen bada elikagai gutxiago xahutzean; kasu horretan, arrazoiak justifikatu beharko dira, dela egingarritasun teknikoagatik, dela elikagaien segurtasunagatik, dela bideragarritasun ekonomikoagatik, dela ingurumena babesteagatik, edo are katearen aurreko beste maila batzuetan kudeaketa-efizientzia handiagoa izateagatik, besteak beste. Moldatzeko eta justifikatzeko aukera hori erregelamendu bidez garatu ahal izango da, eta han adieraziko da zeintzuk diren bitartekoak eta modua justifikatzeko ezinezkoa dela jarduketak artikulua honetan zehaztutako lehentasunetara moldatzea.

3. Hornidura-kateko operadoreek eta kontsumitzaileek errazago aplika dezaten lehentasun-hierarkia eta hondakinak sortzea prebeni dezaten, agintaritza eskudunek erabili ahalko dituzte tresna ekonomikoak eta beste neurri pizgarri batzuk, bereziki hauekin lotutakoak: ekoizpen-kostuak estaltzeko bermea ematea; berrikuntza; elikagaien segurtasuna, elikagaiak dohaintzan ematean; eta gizarte-ekimeneko entitateek eta irabazi-asmorik gabeko beste antolakunde batzuek edo elikagaien bankuek eskura izatea instalazioak eta bitartekoak.

II. KAPITULUA

Elikakateko agenteen betebeharrak

6. artikulua. *Elikakateko agente guztien betebeharrak orokorrak.*

1. Elikakateko agente guztiek betebeharra dute elikagai-galerei eta -xahuketari lege honek 5. artikuluan arabera zehazten duen lehentasun-hierarkia aplikatzeko, hots, elikakatean haien kontrolpean dauden mailetakako edozeinetan sortzen diren galerei eta xahuketari, eta beharturik egongo dira, orobat, hurrenkera hori aplikatzeko neurri egokiak hartzea, hargatik eragotzi gabe apirilaren 8ko 7/2022 Legearen xedapenak eta hondakinei buruzko gainerako araudi aplikagarria.

2. Elikakateko agente guztiek betebeharra dute elikagai-hondakinak murrizteko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 19. artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatzeko, eta bereziki elikagaiak dohaintzan emateari buruzko xedapenak betetzeko.

3. Kontratu-estipulazio bakar batek ere ez du esanbidez galaraziko elikagaiak dohaintzan ematea, eta erabat deuseza izango da.

4. Horretaz gainera, elikakateko agente guztiek betebeharrak hauek dituzte:

a) Elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko aplikazio-plan bat izatea, zeinak zehaztuko baitu zer-nola aplikatuko den 5. artikuluan ezarritako lehentasun-hierarkia.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 20

Autonomía-erkidego batean baino gehiagotan diharduten operadoreek betebeharrak hori plan integratu bateratu baten bidez bete ahal izango dute. Operadoreek badihardute araudi espezifikoaren duten autonomia-erkidegoetan, eta araudi horrek plan bat izatera behartzen badu, orduan plan integratu bateratuak zehaztu beharko du zeintzuk diren operadoreek diharduten autonomía-erkidegoetako araudietan ezarritako betekizunak.

b) Elikagai-soberakinak gizarte-ekimeneko entitateei eta irabazi-asmorik gabeko beste antolakunde batzuei zein elikagaien bankuei dohaintzan emateko akordioak edo hitzarmenak suspertzea, salbu eta bideraezina dela eta behar bezala justifikatzen dela 5.2 artikulua araberak.

c) Laugarren apartatu honetako betebeharrak salbuetsita gelditzen dira 1300 m²-ko edo gutxiagoko establezimenduetan garatutako transformazio-jarduerak, txikizkako merkataritzakoak, elikagai-banaketa-ak, ostalaritzakoak edo jatetxeetakoak, baldin eta publikoarentzako salmentarik ez duten enpresak badira, edo 1300 m²-ko edo gutxiagoko erakusketako eta publikoarentzako salmentako azalera erabilgarria duten publikoarentzako salmentako enpresak badira. Nolanahi ere, eta azalera gorabehera, establezimendu hauek behartuta egongo dira: identifikazio fiskaleko kode beraren pean dihardutenak, baldin eta, oro har eta aurreko irizpideak kontuan hartuta, 1300 m²-tik gorako azalera badute.

5. Elikakateko agente guztiek saihestu behar dituzte elikagaiak kontsumitzeko edo baloritzeko baldintza desegokietan uztea eragiten duten jarduerak.

6. Artikulu honen aurreko apartatuetan aipatzen diren betebeharrak kanpo geratzen dira mikroenpresak.

7. Lege honen betebeharrak kanpo gelditzen dira nekazaritzako ustategi txikiak, zeinak definituta baitaude Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko (2003/361/EE) Gomendioaren arabera —gomendio hori mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoa da—.

7. artikulua *Dohaintza-hitzarmenen edo -akordioen gutxieneko edukia.*

6.4.b) artikuluan aurreikusitako akordioak edo hitzarmenak eduki hau zehaztu beharko du gutxienez:

- 1) Produktuak biltzeko, garraiatzeko eta biltegiratzeko baldintzak.
- 2) Kateko agenteen konpromisoak.
- 3) Agente dohaintza-emaileak hautatuko du zer elikagai eman dohaintzan.
- 4) Antolakunde hartzaileak dohaintzari uko egiteko aukera, behar bezala justifikatuta.

Agente dohaintza-emaileak 5. artikulua 1. apartatuan zehaztutako lehentasun-hierarkia aplikatu beharko du ezetsitako dohaintza kudeatzeko. Agente dohaintza-emaileak erabakiko ditu itzulketa-baldintzak (bilketa eta garraioa), formalizatutako hitzarmenaren arabera.

8. artikulua. *Betebeharrak espezifikoak ostalaritzako eta jatetxeetako enpresentzat.*

Elikakateko agenteek —zehazki, ostalaritzako enpresek eta elikagai-zerbitzuen beste hornitzaile batzuek— kontsumitu gabeko elikagaiak eramateko aukera eskaini behar diote kontsumitzaileari, eta horrek ez du izango, kasua bada, hurrengo paragrafoan aipatutako kostu gehigarriak bestelako kosturik, salbu eta buffet libreko zerbitzuetan edo antzeko formatuetan, zeinetan janaria ez baitago mugatuta. Era berean, argi eta garbi eman beharko dute aukera horren berri establezimenduan bertan, ahal dela kartan edo menuan.

Horretarako, elikadura-erabilerarako egokiak diren ontziak erabiliko dira, berrerabilgarriak edo erraz birzikla daitezkeenak. Erabilera bakarreko plastikozko elikagai-ontzi edo -andeterako, kontuan hartu beharko dira apirilaren 8ko 7/2022 Legearen V. tituluan aurreikusitako xedapenak, bereziki lege horren 55.1 artikuluko kontsumo-murrizketako helburuak betetzeari buruzkoak eta ontziok edo andelok kobratzeko betebeharrari buruzkoak, eta aintzakotzat hartuko dira, berebat, abenduaren 13ko 1021/2022 Errege Dekretuaren 18. artikuluan zehaztutako xedapenak —izan ere, errege dekretu horren bidez txikizkako

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 21

merkataritza-establezimenduetan elikagaiak ekoizteko eta merkaturatzeko higienearen arloko zenbait betekizun arautzen dira—.

Cateringak edo jantoki kolektibo eta sozialak kudeatzen dituzten enpresek edo entitateek ezarri ahalko dituzte, hezkuntza-zentroekin edo zentro soziosanitarioekin lankidetzan, elikagai-xahuketa murrizteko sentsibilizazio-, hezkuntza- eta prestakuntza-programak sukaldeko eta jantokiko langileentzat, bai eta zentroko langileentzat eta erabiltzaileentzat ere.

9. artikulua. *Betebehar espezifikokoak giza kontsumorako egokiak diren elikagaiak dohaintzan emateko elikagaiak banatzen dituzten gizarte-ekimeneko enpresa eta entitateentzat, bai eta xede horrekin diharduten irabazi-asmorik gabeko bestelako antolakundeentzat ere.*

Elikakatearen barruko agenteek —enpresak direnean— eta giza kontsumorako egokiak diren elikagaiak dohaintzan emateko elikagaiak banatzen dituzten gizarte-ekimeneko enpresa eta entitateek, bai eta xede horrekin diharduten irabazi-asmorik gabeko bestelako antolakundeek, Elikagaien Higieneari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko (EE) 852/2004 Erregelamenduaren II. eranskineko V bis kapituluaren aurreikusitakoa betetzeaz gainera, betebehar hauek ere izango dituzte:

a) Dohaintzan emandako produktuen trazabilitatea bermatzea, betiere jasotako eta entregatutako elikagaien sarrera-irteerak erregistratzeko sistema baten bidez. Trazabilitateari buruzko betebeharretatik salbuetsita gelditzen dira ekitaldi komunitarioetan edo ongintzako beste ekitaldi batzuetan elikagaiak *ad hoc* hornitzen dituzten norbanakoak, bai eta antolakunde solidarioak, sozialak edo helburu humanitarioak dituztenak ere, baldin eta aldian-aldian jasotzen badituzte elikagaiak dohaintza-emaile pribatuengandik.

b) Beren kontrolpean dituzten elikagaiak kontserbatzeko eta manipulatzeko higieneari buruzko egokiak izatea, eta, dohaintza-emaileak produktua entregatzen duen unetik aurrera, kudeaketa bere gain hartzea. Elikagaien kalitatea eta segurtasuna bermatzeko instalazio eta ekipo egokiak izan beharko dituzte, baita hotz-katea mantentzeko eragingailuak ere, beharrezkoa denetan.

c) Elikagaiak dohaintzan emateko eta banatzeko garaian, ez egitea diskriminaziorik desgaitasuna, adina, sexua, osasuna, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero-adierazpena, sexu-ezaugarriak, nazionalitatea, atzerritarraren administrazio-egoera, arraza- edo etnia-jatorria, erlijioa edo sinesmenak, lurraldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial direla medio, eta, era berean, giza eskubideak errespetatzen direla zaintzea.

d) Dohaintzan jasotako produktuak kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen ematea; berariaz debekatuta dago elikagaiok merkaturatzea. Debeku hori ez zaie aplikatuko Gizarte-ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legearen 5.4 artikuluan bildutako entitateei.

e) Jasotako produktuen dohaintza lotzea kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen enplegua eta gizarteratze eta laneratzea ahalbidetzen duten proiektuak sustatzearekin, eta, ildo horretan, ikuspegi komunitarioan eta gizarte-kohesioan oinarrituta lan egitea.

f) Dohaintzan jasotako elikagaiak ikuspegi komunitarioan eta gizarte-kohesioan oinarrituriko ikuspegiarekin ematera sustatzea, eta, ildo horretan, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen enplegua eta gizarteratze eta laneratzea ahalbidetzen duten proiektuekin lotzea.

g) Azken onuradunari elikagaiei buruzko informazioa ematea, betiere kontsumitzaileei elikagaien gaineko informazioa emateari buruzko arau nazionalak eta europarrei jarraikiz, eta, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko urriaren 25eko (EB) 1169/2011 Erregelamenduari jarraikiz.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 22

10. artikulua. *Kontsumitzaileen eskubideak.*

Kontsumitzaileek eskubide hauek dituzte:

- a) Administrazio publikoen eta elikakateko enpresen informazioa jasotzea etxeetan eta jatetxeetan elikagai-xahuketa murrizteko neurriei buruz, bai eta elikagai-galerak eta xahuketa prebenitzeko ezarritako programei buruz ere.
- b) Dohaintza gisa jasotzen dituzten elikagaien ezaugarriei, baldintzei eta egoerari buruzko informazioa biltzea gizarte-ekimeneko entitateetatik, bai eta irabazi-asmorik gabeko beste antolakunde batzuetatik edo elikagaien bankuetatik ere.
- c) Ostalaritzako enpresetatik eta elikagai-zerbitzuen beste hornitzaile batzuetatik kontsumitu gabeko elikagaiak eramatea, 8. artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta.

11. artikulua. *Administrazio publikoentzako betebeharrak espezifikak.*

1. Administrazio publikoek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Lankidetzaren sustatzea gainerako administrazioekin eta elikagai-galaren eta -xahuketaren kontrako borrokan diharduten gainerako agenteekin, eta, alde horretatik, arazoari buruzko soluzio berritzaileen garapena suspertzea eta, bereziki, lankidetzaren publiko-pribatua eta publiko-komunitarioa suspertzea.
- b) Zabalakunde- eta sustapen-kanpainak egitea, elikagaien kontsumo arduratsua suspertzeko eta elikagai-galaren eta -xahuketaren prebentzioa eta murrizketa sustatzeko.
- c) Jardunbide egokiak gidatzea, elikagai-kudeaketa hobetzeko eta, hari esker, elikagai-galerak eta -xahuketa gutxitzeko.
- d) Elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko programei buruzko informazioa eskaintzea.
- e) Elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko planak egiteari buruzko gidak jartzea elikakateko agenteen eskura.
- f) Kontsumitzaileak elikagai-xahuketari buruz prestatzea eta sentsibilizatzea zenbait gairen inguruan, hala nola menuak eta erosketak hobeto planifikatzea, erosketa jasagarria egitea (elikagai freskoak, urte-sasoikoak, hurbilekoak edo tokikoak, kasurako), berraprobetxamendu-sukaldaritza, biltegiatze-jardunbide egokiak, iraungitze-data eta kontsumitzeko data lehenetsia egokiro interpretatzea, eta birziklatzea eta ontziratze-materialak.
- g) Xahuketaren prebentzioa sustatzea eta kontsumitzaileari kontsumo-ohiturarik arduratsuenen berri ematea.
- h) Aholkularitza, indarra eta informazioa ematea gizarte-ekimeneko enpresa eta entitateei, eta irabazi-asmorik gabeko bestelako antolakundeei, baldin eta giza kontsumorako egokiak diren elikagaiak banatzen badituzte dohaintza emateko eta birbanatzeko.
- i) Elikagai-soberakinak prebenitzeko eta bideratzeko negozio berrien sorrera sustatzea.
- j) Elikagai-soberakinak birbaloratzeko negozio berrien sorrera sustatzea, betiere ekonomia zirkularraren estrategiari jarraikiz.
- k) Prebentzioaren eta soluzio teknologikoen alorreko ikerketa eta berrikuntza laguntzea, betiere elikagaien bizitza luzatzeko edo elikagaiok berrerrabiltzeko eta birbalorizatzeak, bai eta jakintza hori enpresei transferitzea ere.
- l) Kalitateko produktuen kontsumoa sustatzea.
- m) Ikertzea, ikerketak eta azterlanak laguntzea, eta datuak biltzea, betiere elikagai-galarek eta -xahuketak sorturiko arazoaren tamaina zenbatekoa den jakiteko (bolumenak, kausak, erantzukizunak), bai eta nekazaritzako elikagaien katearen etapa guztientzako eta nekazaritzako elikagaien sistemako sektoreentzako prebentzio-soluzio potentzialen berri izateko ere.
- n) Sare publiko-pribatuen eta publiko-komunitarioen sorrera sustatzea, betiere soberakinaren prebentzioan eta, kasua bada, geroko kudeaketan koordinazioa errazteko.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 23

ñ) Legegintza-koherentzia ziurtatzea, elikagai-galerak eta -xahuketa murrizteko, eta, horretarako, arlo horretan dauden legegintzako ekimenak eta lege hau argitaratu ondoren gara daitezkeen guztiak koordinatzea.

o) Laguntza ematea gure elikadura-sistemako kate-mailetan sortzen den elikagai-xahuketa neurtzeko modu kuantitatibo eta kualitatibo zorrotzean, aldian-aldian eguneratuta.

p) Lege honetan aurreikusitako helburuak lortzeko ezartzen diren jarduketa-tresnak eta -programak egitea eta ezartzea, nork bere eskumenen esparruan.

q) Eskola-elikadurako programetan kontzientziazio- eta informazio-elementuak txertatzea, bai eta elikagai-galerak prebenitzearen eta elikagai-xahuketaren murrizketaren inguruan hezteko neurriak ere.

r) Jardunbide egokien gidak egitea ongintzako entitateei zuzenduta, jasotako elikagaien trazabilitatea nola bermatu adierazteko.

2. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak:

a) Neurtu eta aztertu egingo ditu elikagai-xahuketa eta kontsumitzaileak etxetik kanpo xahutzen duena, eta, horretarako, elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzearen bilakaera behin eta berriz alderatzeko aukera ematen duten metodologiak baliatuko ditu, betiere (EB) 2019/2587 Erabaki Eskuordetuan ezarritako parametroei jarraikiz.

b) Elikagai-xahuketaren neurketaren datuak argitaratuko ditu, gutxienez urtean behin.

c) Eskura duen informazio guztia argitaratuko du elikakateko kate-maila bakoitzean xahuturiko elikagaien inguruan, eta, horretarako, formatu irekiak eta makinak irakurtzeko modukoak baliatuko ditu metadatu eta guzti, Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legearen zehaztapenen arabera, eta, bereziki, ziurtatuko du unean-unean argitaratzen den informazioak betetzen dituela aipatutako legearen 8. artikuluan elikagaiak berrerabiltzeko aurreikusitako baldintza orokorrak.

d) Kateko agenteen arteko lankidetzak suspertuko du, lege honetan aurreikusitako helburuak betetzeko.

e) Beharrezkoak diren koordinazio- eta lankidetzak bidezkoak ezarriko ditu ukitutako beste ministerio batzuekin eta autonomia-erkidegoekin, betiere administrazio-kontrola irizpideak integralak, koordinatuak, baliokideak eta proportzionatuak izan daitezen lurralde nazional osoan.

3. 17. artikuluan aurreikusitako plan estrategikoaren esparruan, autonomia-erkidegoek oinarritzko neurriak eta neurri osagarriak programatzeko tresnak garatuko dituzte lege honetan aurreikusitako helburuak lortzeko, beren lurraldeko toki-administrazioekin elkarbizketa jardun.

4. Aurreko helburuak lortzeko, Gobernuak urteko eta elikakateko maila bakoitzeko helburu espezifikoak ezarri ahal izango ditu erregelamendu bidez, eta, era berean, neurri pizgarriak zehaztu ahal izango ditu xahuketa prebenitzeko edo murrizteko.

III. KAPITULUA

Elikakateko agenteen jardunbide egokien neurriak

12. artikulua. *Azken kontsumitzaileari elikagaiak saltzen dizkieten enpresek bete beharreko jardunbide egokien neurriak.*

1. Enpresek hobetu egin behar dute inperfekzioak dituzten produktuak edo produktu inperfektuak kontsumitzearen segurtasunari buruzko informazioa, eta produktu horiek eta ekoizpen jasangarriagoko elikagaiak saltzeko lerroak sustatu behar dituzte, betiere Europar Batasunean indarrean dauden merkaturatze-arauetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Administrazio publikoek, azken kontsumitzaileari elikagaiak saltzen dizkieten enprekin batera, borondatezko neurri hauek aplikatu ahal izango dituzte:

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 24

a) Manipulazio-, biltegitratze- eta garraio-prozesuak baldintzarik onenetan egiteko azpiegitura egokiak izatea, betiere elikagai-galerak eta -xahuketa ahalik eta txikienak izan daitezen.

b) Lan egitea protokolo espezifikoa garatzeko; protokolo horien helburua, berriz, hauxe izango da: garraio- eta biltegitratze-katean elikagai-galerak eta -xahuketa ahalik eta gehien murrizteko.

c) Kontsumitzeko data lehenetsia edo iraungitze-data hurbil duten produktuen salmenta piztea, lehentasun-hierarkiaren arabera.

d) Txikizkako merkataritzako establezimenduak direnean, produktu «itsusiak», «inperfektuak» edo «ez oso estetikoak» eskaintzen dituzten salmenta-lerroak izatea, betiere Europar Batasunean indarrean dauden merkaturatze-arauetan ezarritakoa betez; era berean, urte-sasoiko produktuen, hurbileko produktuen, produktu ekologikoen eta ingurumenaren aldetik jasangarriak diren produktuen kontsumoa sustatzea, bai eta elikagaiak aprobetxatzeari buruzko informazioa txertatzea eta hobetzea ere.

e) Txikizkako merkataritzako establezimenduak direnean, kontsumitzaileek ikusteko moduko lekuan jartzea inperfekzioak dituzten edo perfektuak ez diren produktuak kontsumitzearen segurtasunari eta onurei buruzko informazioa.

f) Pertsonak prestatzea eta sentsibilizatzea —izan pertsona horiek langileak, izan boluntarioak—, modu aktiboan jardun dezaten elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko, eta pertsonok ekintza horretan inplika ditzaten.

g) Kontsumitzaileek ondo ikusteko moduan jartzea administrazio eskudunek zenbait gai hizpide harturik egiten dituzten zabalkunde-proposamenak; esate baterako, menuak eta erosketak hobeto planifikatzea, erosketa jasangarria egitea (elikagai freskoak, urte-sasoikoak, tokikoak edo ekologikoak, kasurako), berraprobetxamendu-sukaldaritza, biltegitratze-jardunbide egokiak, iraungitze-data eta kontsumitzeko data lehenetsia egoki interpretatzea, eta birziklatzea eta ontziratze-materialak ere, kontsumitzailea gai horien inguruan sentsibilizatzeko.

h) Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak suspertzea elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko, eta, era berean, horiek ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunean duten eragina ezagutaraztea, bai eta kontsumo arduratsua faboratzeko beharrianaz kontzientziazatzea ere.

i) Merkataritzako jardunbide egokiak suspertzea elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko.

j) Proiektu zibikoak eta komunitarioak sustatzea edo laguntzea, baita herritarrek parte hartzeko proiektuak eta boluntarioritza-proiektuak ere, helburu dutenak elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko jardunbideak sustatzea eta haien inguruan sentsibilizatzea, betiere gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak edo kolektibo kalteberei arreta ematekoak lehenetsita.

13. artikulua. *Jardunbide egokien neurriak ostalaritzaren sektorearentzat eta elikagai-zerbitzuen beste hornitzaile batzuentzat.*

Administrazio publikoek, ostalaritzaren sektorearekin eta elikagai-zerbitzuen beste hornitzaile batzuekin batera, aukeran izango dute neurri hauek aplikatzea:

a) Bideragarria den heinean —beren ezaugarri bereziak edo gaiak direla-eta hurbilekoak ez diren produktuak eskuratu beharra egokitzen denean, eskaintzen diren zerbitzuetara eta kontsumitzailearen igurikimenera egokitzen direla bermatzeko—, erosketa jasangarriko irizpideak hartzera sustatzea (hala nola elikagai freskoak, urte-sasoikoak, tokikoak edo ekologikoak), ingurumen-aztarna murrizteko eta hurbileko ekonomia sustatzeko.

b) Menuen malgutasuna sustatzea, kontsumitzaileak aukeran izan ditzan tamaina desberdineko hornigaia edo anoak.

c) Elikagaiak helburu sozialekin dohaintzan ematera suspertzea, bai eta giza kontsumorako beste birbanaketa-mota batzuk ere.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 25

d) Elikagai-hondakinak konpostatze-instalazioetara eramatera suspertzea, hondakinei buruzko araudiaren arabera.

e) Banandutako frakzio organikoaren kalitatea hobetzea, elikagai-hondakinak konpostatze-instalazioetan behar bezala entregatzeko, hondakinei buruzko araudiaren arabera.

f) Pertsonak prestatzea eta sentsibilizatzea —izan pertsona horiek langileak, izan boluntarioak—, modu aktiboan jardun dezaten elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko, eta pertsonok ekintza horretan inplika ditzaten.

g) Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak suspertzea elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko, eta, era berean, horiek ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunean duten eragina ezagutaraztea, bai eta kontsumo arduratsua faboratzeko beharrianaz kontzientziaztea ere.

IV. KAPITULUA

Kontsumitzeko data lehenetsiak arrazionalizatzea

14. artikulua. *Kontsumitzeko data lehenetsiak arrazionalizatzea.*

1. Gobernuak politika publikoak eta neurriak hartuko ditu, betiere kontsumitzeko data lehenetsiak egokitze elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzera eta murriztera. Horretarako, kontuan hartuko dira Europar Batasunak arlo horretako legegintza-xedapenetan eta xedapen ez-legegileetan ezarritako irizpideak, bereziki: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko urriaren 25eko (EB) 1169/2011 Erregelamendua; (EE) 852/2004 Erregelamenduaren II. eranskina; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko (EE) 853/2004 Erregelamenduaren III. eranskina; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko (EE) 853/2004 Erregelamendua, zeinaren bidez ezartzen baitira animalia-jatorriko elikagaien higieneari buruzko arau espezifikoak, eta Batzordearen Komunikazioa, zeinaren bidez ematen baitira elikadura-sektoreko txikizkarien jardueretarako elikagaien segurtasuna kudeatzeko sistemei buruzko jarraibideak, elikagaiak dohaintzan ematea barne (2020/C199/01).

2. Administrazio guztiek:

a) Prestakuntza- eta zabalkunde-ekintzak egingo dituzte, kontsumitzaileek, agente banatzaileek eta ekoizleek iraungitze-data eta kontsumitzeko data lehenetsia behar bezala interpretatzeari buruz.

b) Pizgarriak emango dituzte elikakateko agenteek beren produktuak kontsumitzeko data lehenetsiak doitu ditzaten produktuaren kalitate egokia eta elikagaien segurtasuna bermatuta dauden aldi luzeenera.

c) Elikagaien bideragarritasunari buruzko ikerketa eta berrikuntza sustatuko dituzte, bizitza baliagarria luzatzeko.

d) Azterlan eta ikerketa industrialak egingo dituzte kontsumitzeko data lehenetsiak hobeto markatzeko, elikagaien kalitateari loturik, bai eta ekoizpen-bolumena optimizatzeko eta transformazio-, biltegiatze- eta logistika-prozesuak hobetzeko ere, helburu gisa harturik ahal den neurrian elikagai-xahuketa saihestea.

V. KAPITULUA

Elikagai-galaren eta -xahuketaren murrizketa eta prebentzioa suspertzeko eta kontrolatzeko tresnak

15. artikulua. *Jardunbide egokietarako pizgarriak.*

Administrazio publikoek neurriak aplikatuko dituzte xahuketa murrizteko 12. eta 13. artikuluen barnean dauden jardunbide egokiak ezarrazteko, betiere artikulua bakoitzean aipatzen diren entitateak aintzakotzat hartuta.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 26

16. artikulua. *Autorregulazioa suspertzea.*

Administrazio publikoek elikakateko agenteen borondatezko erregulazio-sistemak suspertuko dituzte, besteak beste, administrazio publikoek eta gizarte zibil interesdunak parte hartzen dutelarik.

17. artikulua. *Elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko politikaren plangintza egitea.*

1. Europako instituzioek ezartzen dituzten jarraibideen arabera eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, Industria eta Turismo Ministerioak, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioak, Gizarte Eskubideen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Ministerioak, eta Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen Ministerioak proposatuta, Gobernuak plan estrategiko bat egingo du elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko, betiere autonomia-erkidegoei eta toki-entitateei kontsulta egin ondoren. Plan horretan hauek jasoko dira: elikagai-xahuketarekin loturiko politikaren estrategia orokorra; orientabideak eta autonomia-erkidegoetako programek bete beharko duten egitura, bai eta elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko bete beharreko gutxienezko helburuak ere. Plan horrek, orobat, koherentea izan beharko du elikagai-hondakinen arloko plangintza estrategikoarekin, eta behar adina datu hartuko ditu plangintza horretatik.

Horretarako, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 19. artikulua arabera egindako Hondakinak Prebenitzeko Estatuko Programaren barneko elikagai-hondakinak murrizteko atal espezifikoaren parte izango dira plan estrategiko horretan jasotako neurriak.

2. Egin beharreko kontsultak egin ondoren egingo dira autonomia-erkidegoen plangintza- edo programazio-tresnak, zeinek izango baitituzte beren lurralde-eremuko elikagai-galaren eta -xahuketaren analisi eguneratua, lortu beharreko helburuak —koherenteak izango baitira plan estrategikoan jasotakoekin—, eta helburu horiek lortzen errazteko erabiliko diren neurrien azalpena.

Programa horiek aurreko programazioan lortu ez ziren helburuak islatuko dituzte, neurri zuzentzaile posibleekin, eta zehaztuko dituzte, orobat, erreferentzia-puntu kualitatibo edo kuantitatibo espezifiko egokiak, betiere elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko eta murrizteko egindako aurrerapenak ebaluatu ahal izateko.

3. Toki-entitateek, beren eskumenen esparruan, elikagai-xahuketaren arloko kudeaketa-programak egin ahalko dituzte banaka edo taldeka, betiere Elikagai-galerak eta -xahuketa Prebenitzeko eta Murrizteko Plan Estrategikoari eta programa autonomikoei jarraikiz eta horiekin koordinatuta.

4. Plan eta programa horiek egitean, arreta berezia ipiniko zaie elikagai-galerak eta -xahuketa nabarmen murrizten dituzten neurriei. Prebenitu ezin izan diren soberakinak kudeatu behar izanez gero, pobrezia murriztea eta elikagaien segurtasuna bermatzea izango dira lehentasunak.

5. Planak eta programak gutxienez lau urtean behin ebaluatu eta berrikusiko dira.

6. Artikulu honetan aurreikusitako plangintza-tresna guztiak partaidetza-prozesu baten bidez egingo dira. Prozesu horretan parte hartuko dute, gutxienez, lurralde-eremu bakoitzean nekazaritzako elikagaien sektorean ordezkaritza handiena duten antolakundeek eta elikadura-eskubidearen aldeko entitateek.

18. artikulua. *Elikagai-galerak eta -xahuketa Kontrolatzeko Plan Nazionala.*

1. Industria eta Turismo Ministerioak, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioak, Gizarte Eskubideen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Ministerioak, eta Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen Ministerioak txostena egin ondoren, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Elikagai-galerak eta -xahuketa Kontrolatzeko Plan Nazionala onetsiko du, betiere autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren. Plan hori gutxienez lau

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 27

urtean behin berrikusiko da, eta arlo horretan eskumena duten administrazioek egin beharreko kontrol-atazen helburu orokorrak eta lehentasunak jasoko ditu.

Plan hori txertatu ahal izango da Elikagai-galerak eta -xahuketa Prebenitzeko eta Murrizteko Plan Estrategikoan.

2. Agintaritza eskudunek horretarako ezartzen dituzten kontrolak sistematikoak izango dira, eta behar adinako maiztasunez gauzatuko dira nekazaritzako edo elikagaigintzako produktuak ekoizten, transformatzen, biltegiatzen, banatzen edo merkaturatzen diren lekuetan, eta, noizean behin, produktu horiek zirkulatzen duten edo ageri diren edozein unetan eta lekutan.

3. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak beharrezkoak diren koordinazio-eta lankidetzak bidezkoak ezarriko ditu administrazio-kontrolak irizpideak integralak, koordinatuak, baliokideak eta proportzionatuak izan daitezen lurralde nazional osoan.

19. artikulua. *Urteko txostena.*

1. Urtean behin, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak txosten bat egingo du, zeinean jasoko baita Elikagai-galerak eta -xahuketa Kontrolatzeko Plan Nazionala egikaritzeak izaniko emaitza —administrazio publiko eskudunek garatutako plana—, baita galerei eta xahuketari buruzko zenbatespenak ere. Autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, Gorte Nagusiei bidaliko zaie txosten hori, betiere informazioa emateko eta kontrolatzeko; hori ez ezik, txosten hori administrazio publiko eskudunen, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren eta publikoaren esku jarriko da.

2. Horretarako, agintaritza eskudunek behar den informazioa emango diote Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari, eta, ildo horretan, erregelamendu bidez ezarriko dira behar den informazioa emateko epea eta modua.

3. Estatuko administrazio orokorrak kontrolean eragina izan dezakeen informazio oro emango die kontrolak egiten dituzten agintariei.

4. Txosten horrek kontuan hartuko du apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65.5.b) artikulua aplikatuz eskura dagoen informazioa.

VI. KAPITULUA

Zehapen-araubidea

20. artikulua. *Arau-haustea.*

1. Elikagai-galeren eta -xahuketaren arloko arau-haustea oso astunak, astunak eta arinak izango dira.

Arau-hauste horiek bateragarriak izango dira sortzen diren beste zernahi erantzukizun zibilekin, penalekin edo bestelakoekin, eta, bereziki, zehapen-araubidea arlo hauetan aplikatzearekin baldin eta zigor-oinarria desberdina bada: hondakin eta lurzoru kutsatuak, elikagaien kalitatea, kontsumoa, merkataritza, higiena, osasun publikoa eta elikagaien segurtasuna.

2. Autonomia-erkidegoek arau-hauste hauek zehaztuko dituzte, baldin eta beraiek arautzen badute elikagai-galeren eta -xahuketaren prebentzioa maila autonomikoan:

a) Arau-hauste arinak:

1) Elikagaiei ez aplikatzea lehentasun-hierarkia xahuketa kudeatzean, edo ez justifikatzea behar bezala xahuketa aplikatu ez izanaren arrazoiak, 5.2 artikuluan estipulatutakoa kontuan hartuta.

2) Baldin eta elikagai-industriak, elikagaiak txikizka banatzen dituzten enpresak eta ostalaritza- eta jatetxe-enpresak behartuta badaude saldu gabeko elikagaiak dohaintzan ematera 6. artikuluan adierazitakoaren arabera, giza kontsumorako egokiak izaten jarraitzen duten elikagaiak dohaintzan ez ematea bakoitzari dagokion akordioan edo hitzarmenean jasotako baldintzetan, baldin eta horretarako bitarteko nahikoak badituzte

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 28

eta prebentzio-planean ez badago jasota hori ez egiteko arrazoirik, 5.2 artikulua arabera, gizarte-ekimeneko entitateekin eta irabazi-asmorik gabeko beste antolakunde batzuekin edo elikagaien bankuekin.

3) Ez betetzea elikagai-xahuketa prebenitzeko eta elikagai-hondakinak murrizteko jardunbide egokien gida sektorialean jasotako konpromisoak, kontuan izanik enpresari aplikatzekoa zaiola gida hori.

4) Kontratu-estipulazio baten bidez berariaz galaraztea elikagaiak dohaintzan ematea.

5) Dohaintzan emateko elikagaiak banatzen dituzten gizarte-ekimeneko enpresa eta entitateak eta irabazi-asmorik gabeko beste antolakunde batzuk direnean, elikagai-soberakinak ez ematea behartsuei, salbu eta elikagai horiek ez daudela baldintza egokietan giza kontsumorako, justifikatuta dagoen arrazoi batengatik eta arrazoi horrek zerikusirik ez badu entitatearekin; kasu horretan, ez da hartuko arau-haustetzat.

6) Ez laguntzea administrazio publikoei elikagai-hondakinak zenbatesten.

b) Arau-hauste astunak:

1) Ez izatea elikagai-xahuketa eta -hondakinak prebenitzeko eta murrizteko enpresa-planik, horretara behartuta egonez gero.

2) Diskriminazioak egitea dohaintzatik datozen elikagaiak banatzeko orduan, edozein arrazoi, kausa, inguruabar edo tasunengatik.

2 bis) Nahita suntsitzea edo aldatzea kontsumitzeko baldintza egokiak betetzen dituzten elikagaiak.

3) Arau-hauste arin bat bigarren ez edo gehiagotan egitea, baldin eta errepikatzea badakar bi urteko epean egindako beste edozein arau-hauste arinekin; bi urteok kontatzen hasten dira lehenengo arau-haustearen administrazio-bideko ebazpen irmoaren bitartez jarritako zehapenetik.

c) Arau-hauste oso astuntzat joko da arau-hauste astun bat bigarren ez edo gehiagotan egitea, baldin eta errepikatzea badakar bi urteko epean egindako beste edozein arau-hauste astunekin; bi urteok kontatzen hasten dira lehenengo arau-haustearen administrazio-bideko ebazpen irmoaren bitartez jarritako zehapenetik, salbu eta b) 3) apartatuan aurreikusitakoa.

21. artikulua. *Zehapenak.*

Lege honen ondoreetarako, eta ezertan eragotzi gabe aplikatzekoa den beste araudi sektorial batek xedatzen duena, zehapen hauek ezarriko ditu agintaritzak eskudunak berari dagokion eremuan:

a) Arau-hauste arinengatik, ohartarazpena egingo da edo 2000 eurorainoko isuna ezarriko da.

b) Arau-hauste astunak 2001 eurotik 60 000 eurora bitarteko isunaren bidez zehatuko dira.

c) Arau-hauste oso astunak 60 001 eurotik 500 000 eurora bitarteko isunaren bidez zehatuko dira.

Alabaina, autonomia-erkidegoek aukeran izango dute atalase horiek handitzea, eta beste zehapen gehigarri edo erantsi batzuk jarri ahal izango dituzte beren lege-mailako arauetan.

22. artikulua. *Zuzentzea.*

Ikuskapen-jarduketak egiaztatzen badu arau-hauste arin bat egitea eragin dezaketen ez-betetzeak eta irregulartasunak ageri direla arau honen arabera, orduan interesdunari epe egokia eta nahikoa eman ahal izango zaio egoera hori zuzentzeko.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 29

23. artikulua. *Arau-hausteen preskripzioa.*

1. Lege honetan aurreikusitako arau-haustee epe hauetan preskribatuko dute:
 - a) Arau-hauste arinek: sei hilabetea.
 - b) Arau-hauste astunek: urtebetea.
 - b) Arau-hauste oso astunek: bi urtea.
2. Arau-haustee preskribatzeko dagoen epea arau-haustee gertatzen diren egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Arau-haustean, baldin eta tipifikatutako jokabideak titularrari betebeharrak iraunkorra eragiten badiot, jardura uzten den egunetik aurrera zenbatuko da preskripzio-epea.
3. Arau-hausteen preskripzioa geldiarazi egingo da dagokion zehapen-prozedura hasten denean; horren berri emango zaio interesdunari, eta preskripzio-epea berriz hasiko da zenbatzen, baldin eta prozedura hilabete baino gehiago geldirik badago eta kausa ustezko erantzuleari egotzi ezin bazaio.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Elikagai-hondakinak zenbatestea.*

Administrazio publikoek behar diren bitartekoak sustatuko dituzte elikagai-hondakinak neurtzeko, kontuan harturik Batzordearen (EB) 2019/1597 Erabaki Eskuordetua, 2019ko maiatzaren 3koa, zeinaren bidez osatzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentaraua, betiere elikagai-hondakinak uniformeki neurtzeko metodologia komunari eta gutxienezko kalitate-betekizunei dagokienez.

Horretarako, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren arteko hitzarmen baten bidez adostuko dira informazioa trukatzeko lankidetzak-mekanismoak, elikagai-hondakinak zenbatesteko betebeharrak betetzeko, betiere Batzordearen 2019ko maiatzaren 3ko (EB) 2019/1597 Erabaki Eskuordetuan ezarritako metodologiaren arabera.

Era berean, erregelamendu bidez garatu ahal izango dira informazio hori lortzeko prozedurak, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta hala garatuko dira, orobat, elikakateko agenteek informazio hori agintaritzak eskudunei bidaltzeko baldintzak ere.

Bigarren xedapen gehigarria. *Natura-bideak interes orokorrekoak direlako adierazpena.*

Adierazten da ezen interes orokorrekoak direla landa-azpiegituretako obra hauek, eta, zehazki, natura-bideak egitekoak:

1. Guadalquivirko Natura-bidea eta beste ardatz batzuekiko lotura (Andaluzia, Extremadura eta Gaztela-Mantxa).
2. Mediterraneoan ibilbidea izeneko natura-bidea (Andaluzia eta Murtziako Erregioa).

Hirugarren xedapen gehigarria. *Elikagai-galerak eta -xahuketa Prebenitzeko eta Murritzeko Plan Estrategikoaren eta programa autonomikoen edukia.*

Elikagai-galerak eta -xahuketa Prebenitzeko eta Murritzeko Plan Estrategikoaren barnean dauden neurriak garatzeko —zeinak sartuko baitira apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 19. artikuluan arabera egindako Hondakinak Prebenitzeko Estatuko Programako elikagai-hondakinak murritzeko atal espezifikoan, lege honen 17.1 artikuluari jarraikiz—, aintzakotzat hartuko dira Europar Batasunak horri buruz emandako xedapenak, behin neurriok hartuak izan eta gero.

Era berean, autonomia-erkidegoetako programazio-tresnek kontuan hartu beharko dituzte aurreko paragrafoan adierazitako ohar berberak.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 30

Laugarren xedapen gehigarria. *Gobernuak olibadi- eta mahasti-sektoreetarako ematen dituen laguntzak atontzea.*

1. Gobernuak salbuespenezko laguntza bat ezarriko die olibadi- eta mahasti-sektoreetako nekazaritza-ustiategiei gehienez ere bi hilabeteko epean, kontuan izanik ekoizleek jasotako diru-sarrerak gutxitu egin direla; izan ere, gutxitze hori inputen prezioa gehitzeak sorrarazitako ekoizpen-kostuen gehikuntzaren ondoriozkoa da; gehitze hori Ukrainako inbasioak sortua da, eta, gainera, egoera hori okerragotu egin da lehortearen eraginak uzta gutxitu duelako.

2. Laguntza horren onuradun izango dira lehentasunezko zatik kalifikatutako ustiategien titularrak, bai eta nagusiki nekazariak diren ustiategien titularrak ere, Nekazaritzako Ustiategiak Modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen arabera, baldin eta lehorreko edo ureztatze defizitarioko olibadien eta mahastien azalerak badituzte klima-egoera dela-eta.

3. Laguntzak 85 milioi euroko funts-zuzkidura izango du lehorreko mahastien azaleretarako, eta 285 milioi eurokoa lehorreko olibadien azaleretarako; era berean, beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egin beharko dira.

4. Laguntza zuzeneko emakida-prozedura baten bidez atonduko da, nekazariak laguntza azkar jasotzen dutela bermatzeko eta administrazioarekiko harremanetan arrakala digitalak ukituriko administratuen eskubideak bermatzeko.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Ureztatzeak modernizatzeko zenbait obra interes orokorrekoak direlako adierazpena.*

1. Adierazten da ezen interes orokorrekoak direla ureztatzeak modernizatzeko obra hauek:

a) Barrancos de Sierra Nevada ureztatzaileen erkidegoa modernizatzeko eta ureztatzeak hobetzeko proiektua, Abila eta Abrucena udalerrietan (Almería).

b) La Retención Kanaleko ureztatzaileen erkidegoko ureztatzea modernizatzeko obrak Ribas de Campos, Monzón de Campos, Grijota, Villaumbrales, Becerril de Campos, Husillos eta Palentzia udalerrietan (Palentzia).

c) Torreblancako (Ponts) eta Basellako (udalerri horretako sektore bat eta Pinelleko beste bat) ureztatzea modernizatzeko obrak, Rialb-eko (Lleida) urtegia konpentsatzeko ureztatzeen esparruan.

d) Alesancon (Errioxa) Najerillaren ezker aldeko kanaleko II. tarte ureztagarria zabaltzeko proiektua.

e) La Fuente ibaia zabaltzeko proiektua Navarreten (Errioxa).

f) Bajo Tuerto ureztatzaileen erkidegoko ureztatzea modernizatzeko (Los Tres Concejos, San Félix, Villanueva eta Santibáñez de la Isla uharka-ureztatzaileen erkidegoak; La Manga, Santa María de la Isla, Barrientos eta Posadilla de la Vega uharkakoak; San Esteban, Bajo Tuerto uharkakoak; eta Toralino eta Toral de Fondoko ureztatzaileen elkarteak) (León).

g) El Porma ezker aldeko kanaleko eremu ureztagarriko V. sektoreko ureztatzea modernizatzeko (León).

h) El Moro uharkako ureztatzaileen erkidegoko ureztatzea modernizatzeko (León).

i) Duernako eremu ureztagarriko ureztatzaileen erkidegoko ureztatzea modernizatu eta sendotzea (León).

j) 12 000 hektarea ureztatze-eremu bihurtzea La Armuña eremu ureztagarrian, II. fasea (Salamanca).

k) Axarquíako Ureztatzaileen Batzorde Zentraleko (Ezker aldeko) ureztatzeak modernizatzeko eta sendotzeko obrak (Málaga).

l) Motrilgo ureztatzaileen erkidegoko ureztatze-lurrak hobetzeko eta modernizatzeko obrak (Granada).

m) San Roqueko ureztatzaileen erkidegoko ureztatzeak modernizatzeko obrak (Murcia).

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 31

n) Sangonera la Secako Tajo-Segurako ur-eramateko ureztatzaileen erkidegoaren kudeaketa hidrikoa hobetzeko modernizazio-proiektua (Murtziako Erregioa).

2. Xedapen gehigarri honen barnean dauden obrek adierazpen hauek egitea dakarte berez:

a) Onura publikokoa, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 9., 10. eta 11. artikuluetan aurreikusitako ondoreetarako.

b) Presakoa, 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikulua aipatutakoa, ukitutako ondasunen okupazioaren ondoreetarako.

3. Interes orokorrekoak direlako adierazpen horrek aukera emango du obra horietarako nahitaezko desjabetzeak egiteko eta ukitutako ondasunak lehenbailehen okupatzeko.

Seigarren xedapen gehigarria. *Nekazaritzako lanbide-antolakundeek estatu-eremuan duten ordezkaritza zehaztea.*

Xedapen honetan jasotako erregelen arabera finkatuko da nekazaritzako lanbide-antolakundeek estatu-eremuan duten ordezkaritza:

Lehenengo erregela. Antolakundeek ordezkaritza zehazteko prozeduran parte hartu ahal izateko bete beharreko betekizunak.

Hirugarren erregelak ezarritako prozedura hasi aurreko urteko abenduaren 31n betekizun hauek betetzen dituzten entitateek eskatu ahal izango dute estatu-eremuan ordezkaritza handiena duten antolakunde gisa aitortuak izatea:

a) Izaera orokorreko eta estatu-eremuko nekazaritzako lanbide-antolakunde gisa eratuta eta aitortuta egotea Sindikatuetan Elkartzeko Eskubidea Arautzeari buruzko apirilaren 1eko 19/1977 Legearen babesean, eta estatutuak inskribatuta edukitzea antolakunde enpresarial gisa estatu-eremuko lan-agintaritzak eskudunaren erregistroan gutxienez urtebete antzinasunarekin, hirugarren erregelaren aurreikusitako ordezkaritza neurtzeko prozedura hasteko ebazpena argitaratzen den egunean.

b) Estatutuen bidez hauek egiaztatzea:

1) Izaera orokorreko nekazaritzako lanbide-antolakundeak izatea, ez sektorialak.

2) Estatutuetako helburu eta xedeen artean jasota edukitzea nekazaritzaren interes orokorrak defendatzea, eta halakotzat hartuko dira nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jarduerak, bai eta nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategien titularren interes profesionalak, ekonomikoak eta sozialak defendatzea eta sustatzea ere.

3) Estatu-eremuan jardutea.

Aitortzea eskatzen duen entitatea izaera orokorreko eremu txikiagoko antolakundeek (autonomikoak, probintzietakoak edo uharteetakoak), eta ez-sektorialekoek, osatzen badute, nahiz eta antolakunde horietako bakoitzak jatorrizko izena eta nortasun juridiko propioa gorde, egiaztatu egin beharko da integrazio hori; horretarako, edozein titulu juridiko baliatu ahalko da, baldin eta modu fede-emailean egiaztatzen badu aitortzea eskatzen den egunean baduela gutxienez sei hilabeteko antzinasuna.

c) Gutxienez zazpi autonomia-erkidegotan ezarrita egotea eta modu eraginkorrean jardutea.

Bigarren erregela. Ordezkaritza zehazteko irizpideak.

1. Nekazaritzako lanbide-antolakundeek estatu-eremuan izango duten ordezkaritza autonomia-erkidegoek luzatutako ordezkaritza-ziurtagirietan oinarrituta bakarrik zehaztuko da, betiere ordezkaritza aitortzeko ezarritako sistemen arabera edo, bestela, erkidego

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 32

horietako bakoitzean ezarritako egoeren arabera. Ziurtagiri horiek Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeriora bidali beharko dira.

2. Aurreko artikuluan aipatutako ordezkaritza-ziurtagiriak irizpide hauetan oinarrituta egingo dira:

a) Legedia indarrean daukaten autonomia-erkidegoetan, ordezkaritza handiena dutenak direla egiaztatuko da, betiere autonomia-erkidegoek administrazio autonomikoaren ondoretarako ordezkaritza handienekoak direla zehazteko lege ezarritako prozesuen arabera, bozketa-prozesuok indarrean daudenean; eta bozketa-prozesuak egin dituzten autonomia-erkidegoetan, berrienetik ateratako datuen arabera egiaztatuko da.

b) Ordezkaritza handiena ezartzeko legedia indarrean daukaten autonomia-erkidegoetan, baldintza hori betetzen dutela egiaztatuko da, betiere datuen arabera.

c) Gainerako autonomia-erkidegoetan, subsidiarioki, nekazaritzako lanbide-antolakundeek autonomia-erkidegoetan duten partaidetza instituzionala egiaztatuko da. Horretarako, kontuan hartuko da antolakundeok autonomia-erkidegoetako organo instituzionaletan duten partaidetza edo autonomia-erkidegoetako arauak egiteko prozesuetan izan duten partaidetza.

3. Estatu-eremuan ordezkaritza handiena duen nekazaritzako lanbide-antolakundearen aitortzea eskatu nahi duen antolakundeak autonomia-erkidego eskudunen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, zeinek egiaztatu behar baitute antolakundeak ordezkaritza handiena edo ezarpen handiena duela, 2. apartatuaren a), b) eta c) letretan ezarritakoaren arabera.

4. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak autonomia-erkidegoen kasuan kasuko ziurtagiriak jaso ondoren, nekazaritzako lanbide-antolakundeetako bakoitzak estatu-eremuan ordezkaritza handiena ote duen zehaztuko da.

5. Estatu-eremuan ordezkaritza handienekoa izateko, nekazaritzako lanbide-antolakunde batek gutxienez zazpi autonomia-erkidegotan ordezkaritza handiena lortu beharko du, edota autonomia-erkidegootan partaidetza instituzionala egiaztatu beharko du, betiere 2. apartatuaren a), b) eta c) letretan ezarritakoaren arabera.

6. 5. apartatuan aurreikusitako betekizuna betetzen dutenen artean, exijituko da, berebat, nekazaritzako lanbide-antolakundeak LAAB sisteman (Langile Autonomoen Araubide Berezia) eta NLSB norbere konturako sisteman (Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia) gutxienez afiliatu nazional guztien % 10 izatea.

Ehuneko hori honela kalkulatu da:

a) Ziurtapena 2 a) apartatuaren arabera eman duten autonomia-erkidegoentzat, lortutako botoak zenbatuko dira, eta haien ehunekoa kalkulatu da, autonomia-erkidego horretako LAAB sisteman (Langile Autonomoen Araubide Berezia) eta NLSB norbere konturako sisteman (Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia) afiliatutako langileen kopuruaren arabera.

b) Ziurtapena 2 b) apartatuaren arabera eman duten autonomia-erkidegoentzat, ziurtagirian aitortutako antolakundeko afiliatuak zenbatuko dira, eta haien ehunekoa kalkulatu da, autonomia-erkidego horretako LAAB sisteman (Langile Autonomoen Araubide Berezia) eta NLSB norbere konturako sisteman (Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia) afiliatutakoen kopuruaren arabera.

c) Ziurtapena 2 c) apartatuaren arabera eman duten autonomia-erkidegoentzat, antolakundeek kopurua hartuko da kontuan, eta portzentaje berdina emango zaio ziurtagirian agertzen diren antolakundeetako bakoitzari autonomia-erkidego horretako LAAB sisteman (Langile Autonomoen Araubide Berezia) eta NLSB norbere konturako sisteman bakoitzak dituen (Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia) afiliatuen kopuruaren arabera.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 33

Hirugarren erregela. Prozedura hastea.

Ordezkaritza zehazteko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Idazkariordetzak prozedura hastea erabakiko du, ordezkari hori ebazpen baten bidez zehazteko. Ebazpen hori sailaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua arabera, eta antolakunde interesdunei hilabeteko epea emango zaie izaera hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezaten.

Laugarren erregela. Prozedura izapidetzea.

1. Eskabidea eta berari dagokion dokumentazioa jaso ondoren, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak egiaztatuko du entitateek betetzen dituztela lehenengo erregelako betekizunak, eta, beraz, egiaztatu ahal izango du entitateon estatutuetako xedeen artean ageri dela nekazaritzaren interes orokorrak defendatzekoa —apirilaren 1eko 19/1977 Legean aurreikusitakoaren arabera erregistratutako eraketa-estatutuen bidez egiaztatuko da alderdi hori—; ildo horretan, estatutu horietatik zailtasunik gabe ondorioztatu behar da entitate horien nekazaritza-izaera orokorra, ez-sektoriala, eta entitateok estatu-eremuan jarduten dutela; era berean, estatutuek jaso behar dute edozein kidek izan behar duela afiliatzeko aukera, nonahi bizi dela ere; betiere, hori guztia bete behar da eskabidearen izapidetzea onartze aldera.

2. Eskabideen izapidetzea onartu ondotik, eta aurkeztutako dokumentazioa ikusita, egiaztatuko da betetzen direla bigarren erregelako baldintzak.

3. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, beharrezkoa bada, alegatutako irizpideak eta dokumentazioa egiaztatu ahal izango ditu.

Bosgarren erregela. Prozedura ebaztea.

1. Izapidetzea amaitu ondoren, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Idazkariordetzak, arrazoiak emanez, adieraziko du zeintzuk diren estatu-eremuan ordezkari handiena duten nekazaritzako lanbide-antolakundeak; horretarako, banakako ebazpenak emango ditu, baldin eta zehazten bada betetzen direla bigarren erregelaren finkatutako baldintzak.

2. Era berean, gainerako eskabideak ez onartzeko edo ezesteko ebazpena emango du.

3. Ebazpen guztiak egunean bertan argitaratu beharko dira Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Seigarren erregela. Aitortzearen indarraldia.

1. Ordezkaritza adierazten duten ebazpenen indarraldia bost urtekoa izango da, ebazpenok argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita.

Gobernuak, lehenengo ebazpenen indarraldia amaitu aurretik, autonomia-erkidegoei eta estatu-eremuan ordezkari handiena duten nekazaritzako lanbide-antolakundeei kontsulta egin ondoren, nekazari profesionalen ordezkari hori egiaztatzeko sistema berri bat bultzatu eta proposatu beharko du estatu-mailan; sistema hori legeetan ezarritako irizpide objektibo eta zehatzetan oinarrituko da. Irizpide horietan, berriz, funtsezko oinarria izango da hauteskundeak egitea nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako jarduerak egiteagatik Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda daudenen artean.

2. Indarraldia amaitu baino hiru hilabete lehenago, idazkariordetzak beste ebazpen bat emango du ordezkari hori zehazteko prozedura haste aldera, betiere xedapen honetan jasotako erregelen arabera.

3. Hala ere, ebazpenok aldi baterako indarrean egongo dira, harik eta ordezkari hori neurtzeko prozedura amaitzen duten ebazpenak argitaratu arte.

4. Nekazaritzako lanbide-antolakunde baten parte bat bereizten bada edo nekazaritzako lanbide-antolakunde bat zatitzen bada, aitortzea jaso zuen antolakundearen IFZaren titulartasuna mantentzen duen entitatea bakarrik izango da ordezkari handiena

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 34

duen nekazaritzako lanbide-antolakundea, hargatik eragotzi gabe, dena den, ordezkaritza neurtzeko hurrengo prozeduran parte hartu ahal izatea.

Zazpigarren erregela. Aitortzearen ondore orokorrak.

Izaera orokorreko nekazaritzako lanbide-antolakundeei, xedapen honetako irizpideen arabera, aitortzen bazaie badirela estatu-eremuan ordezkaritza handiena dutenak, orduan antolakundeok ordezkaritza instituzionaleko eginkizunak beteko dituzte beren interesak Estatuko administrazio orokorraren eta Estatuko beste entitate edo organismo batzuen aurrean defendatzeko, eta halakotzat hartuak izateari darizkion eskubideak izango dituzte.

Zortzigarren erregela. Nekazaritza Kontseilua.

1. Izaera orokorreko nekazaritzako lanbide-antolakundeei, xedapen honen arabera, aitortzen bazaie badirela estatu-eremuan ordezkaritza handiena dutenak, orduan antolakundeok Nekazaritza Kontseiluko kide izango dira, zeina eratzen baita Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari atxikitako kide anitzeko organo aholku-emaile gisa, helburu gisa harturik Estatuko administrazio orokorrari aholkularitza ematea nekazaritza-eta landa-arloetako interes orokorreko arazoetan, eta erregelamendu bidez garatuko da haren erregulazioa.

2. Nekazaritza Kontseiluak eginkizun hauek ditu:

a) Sailak nekazaritzaren eta landa-garapenaren arloan aurkeztu dizkion arau-proiektuen berri izatea.

b) Nekazaritza Politika Erkidearen eta nekazaritza-politikaren neurrien berri izatea eta beraiei buruzko txostena ematea, baldin eta neurriok haren azterketaren mendean jartzen badira.

c) Txostenak ematea nekazaritza-sektorearen egoera sozialaren eta ekonomikoaren bilakaerari buruz, eta gomendioak egitea nekazaritza-sektore horren bizi-kalitatea hobetzeko beharrezko ikusten dituen neurriak hartzeko.

d) Nekazari profesionalen eta nekazaritza-jardueraren baldintza sozioekonomikoak eragin ditzaketen politikak hobetzeko egoki jotzen diren iradokizunak egitea.

e) Kontseiluko buruak eztabaidatzeko proposatutako arazoak ezagutu eta haien gaineko txostenak ematea.

3. Nekazaritza Kontseilua bi kontseilarik osatzen dute, estatu-eremuan ordezkaritza handiena duten nekazaritzako lanbide-antolakundeetako bakoitzak proposatuta eta ministroak izendatuta —ministroa bera izango da kontseiluburua—, bai eta saileko ordezkari kopuru baliokide batek ere, hori guztia Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotako emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioak diotenaren arabera.

Bederatzigarren erregela. Beste partaidetza-organoko batzuk.

1. Estatu-eremuan ordezkaritza handiena duten nekazaritzako lanbide-antolakundeen partaidetza jasotzen duten arau sektorialak sei hilabeteko epean moldatuko dira, betiere unean-unean xedapen honen arabera estatu-eremuan ordezkaritza handieneko nekazaritzako lanbide-antolakundeak direlako adierazpena lortu duten antolakunde guztien partaidetza bermatzeko.

2. Era berean, nekazaritza-sektorearen ordezkaritza duten nazioarteko eta nazioz gaindiko organismoek jakinaraziko zaie zeintzuk diren ordezkaritza zehazteko ondoz ondo egiten diren prozesuen emaitzak.

Hamargarren erregela. Zuzeneko dirulaguntzak.

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 b) artikulua dela bide, indarraldia 2025eko urtarrilaren 2tik aurrerakoa delarik, zuzeneko dirulaguntza bat ezartzen da estatu-eremuan ordezkaritza handieneko nekazaritzako lanbide-

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 35

antolakundeak direlako adierazpena lortu dutenei emateko; dirulaguntza horren helburua, berriz, hauxe da: Estatuko administrazio orokorraren, Europar Batasunaren edo eremu horietako beste instituzio batzuen aurrean egin beharreko ordezkaritza- eta lankidetzajarduerak egitea, betiere deialdi bakoitzean zehaztutakoaren arabera.

2. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak banatuko du urte bakoitzean Estatuaren aurrekontu orokorretan horretarako jasotzen den zenbatekoa, deialdi bakoitzean ezarritakoaren arabera, eta ezin izango da eman lehia-konkurrentziaren bidezko dirulaguntzarik helburu berberetarako.

Hamaikagarren erregela. Estatu-eremuko ordezkaritza handieneko nekazaritzako lanbide-antolakundearen tasuna erabakitzeke lehenengo prozedura hasteko epea.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Idazkariordetzak erabakiko du hiru hilabeteko epean hastea estatu-eremuko ordezkaritza handieneko nekazaritzako lanbide-antolakundearen tasuna erabakitzeke lehenengo prozedura, xedapen honen arabera; epe hori xedapen gehigarri hau indarrean jartzen denetik hasiko da zenbatzen, eta bete beharrekoa izango da lege honen azken xedapenaren bigarren paragrafoan indarrean jartzeari buruz aurreikusitakoa.

Hamabigarren erregela. Estatu-eremuko nekazaritzako lanbide-antolakundearen ordezkaritza iragankorra.

Xedapen honen arabera estatu-eremuko ordezkaritza handieneko nekazaritzako lanbide-antolakundeak direlako adierazpena egin arte, aurreko legediaren arabera aitortze hori lortu zutenak izango dira ordezkaritza handienekoak.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Buruxkatzea edo txordoketa arautzea.*

Autonomia-erkidegoek irabazi-asmorik gabeko jardura osagarri gisa arautu ahal izango dute buruxkatzea edo txordoketa, betiere elikagai-galerak eta -xahuketa prebenitzeko.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Espezie natural harrapariak ekoizpen-sistemaren efizientziarako kontrolatzea.*

Otsoen eta, oro har, ekoizpen-sisteman eragin handia duen edozein espezie harrapariaren erauzketa- eta harrapaketa-neurriak doitu egingo dira bertako basaespezieen kontserbazioa bermatzeko aurreikusitako eskakizunetara. Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan sartuta daudenei, bereziki, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 61. artikuluan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaie. Horretarako, 61.1 artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, ekoizpen-sistemaren efizientziagatik ere justifikatu ahalko dira salbuespenezko baimenak.

Europako Batzordera bidali aurretik, Ingurumeneko Konferentzia Sektorialak onetsiko ditu, Natura-ondarerako eta Biodibertsitaterako Estatuko Batzordeak proposatuta, habitat naturalak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 17. artikuluan aurreikusitako seiurteko txostenak.

Xedapen iragankor bakarra. *Europako araudira moldatzea.*

Duero hegoaldeko otso-populazioak babesteko araubidea aldatzen bada habitat naturalak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren eranskinetan, eta, aldaketa hori dela eta, otso-populazio horiek Europar Batasunaren intereseko animalia- eta landare-espezieen eranskinean sartzen badira naturan jasoz eta otso-populazio horiek kudeaketa-neurriez kudeatu ahal badira, orduan automatikoki aldatuko da 139/2011 Errege Dekretua,

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 36

otsailaren 4koa, Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa garatzen dituen; aldaketa horren helburua, berriz, otso-populazioak Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendatik baztertzea izango da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arau-indargabetzea.*

Indargabeturik gelditzen dira kontrakoa dioten xedapen guztiak, eta, bereziki, 12/2014 Legea, uztailaren 9koa, zeinaren bidez arautzen baita nekazaritzako lanbide-antolakundeen ordezkartza zehazteko prozedura eta sortzen baita Nekazaritza Kontseilua.

Berebat, indargabeturik gelditzen da APM/476/2018 Agindua, apirilaren 30ekoa, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira Estatuko administrazio orokorraren eta Europar Batasunaren aurrean lankidetzaren eta ordezkartza-jarduerak egiteagatik eta Espainiako nekazaritzako elikagaien sektorerako interes bereziko jardura espezifikoak egiteagatik nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorea ordezkatzeko duten elkarte-entitateei dirulaguntzak emateko.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Aldatzea 705/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Nekazaritzako Elikagaien Lanbide Arteko Antolakundeak arautzen dituen abenduaren 30eko 38/1994 Legearen Erregelamendua —lege hori Neurri Fiskalei, Administrazio-neurriei eta Gizarte-arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen bidez aldatu zen—.*

Maila gorderik, aldatu egiten da 705/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Nekazaritzako Elikagaien Lanbide Arteko Antolakundeak arautzen dituen abenduaren 30eko 38/1994 Legearen Erregelamendua —lege hori Neurri Fiskalei, Administrazio-neurriei eta Gizarte-arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen bidez aldatu zen—, zehaztutako hauen arabera:

Bat. Honela gelditzen da idatzita 23. artikuluko 2. apartatuko c) letraren bosgarren paragrafoa:

«Bi kide, estatu-eremuko ordezkartza handieneko adierazpena lortu duten nekazaritzako lanbide-antolakundeetako bakoitzeko.»

Bi. Honela gelditzen da idatzita 23. artikuluko 3. apartatuko c) letraren hirugarren paragrafoa:

«Kide bat, estatu-eremuko ordezkartza handieneko adierazpena lortu duten nekazaritzako lanbide-antolakundeetako bakoitzeko.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Aldatzea 388/1998 Errege Dekretua, martxoaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Nekazaritzako Aseguruen Estatuko Entitatearen Batzorde Orokorra eta Nekazaritzako Aseguruei buruzko Autonomia Erkidegoekiko Koordinazio Batzordea.*

Maila gorderik, aldatu egiten da 1. artikuluko e) letra, eta e bis) letra gehitzen zaio Nekazaritzako Aseguruen Estatuko Entitatearen Batzorde Orokorra eta Nekazaritzako Aseguruei buruzko Autonomia Erkidegoekiko Koordinazio Batzordea aldatzeko martxoaren 13ko 388/1998 Errege Dekretuari. Honela geratzen da idatzita:

«e) Kide bat, estatu-eremuko nekazaritza-kooperatiben antolakundeak ordezkatzeko.

e bis) Kide bat, estatu-eremuko ordezkartza handieneko adierazpena lortu duten nekazaritzako lanbide-antolakundeetako bakoitzeko.»

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 37

Azken xedapenetako hirugarrena. *Aldatzea 1164/2001 Errege Dekretua, urriaren 26koa, Energia Elektrikoa Garraiatzeko eta Banatzeko Sareetara Iristeko Tarifak ezartzen dituen.*

7. apartatua gehitzen zaio 4. artikuluari (Sareetara iristeko tarifako kontratuen baldintza orokorrak), eta honela geratzen da idatzita:

«7. Sareetara iristeko kontratuei dagokienez, baldintza partikular hauek aplikatuko zaizkie nekazaritzako ustategien titularrei, izan autonomoak, izan enpresak, barnean harturik nekazaritza-kooperatibak eta urtarokotasunari lotutako ureztatzaileen erkidegoak:

Sareetara iristeko kontraturako eskubidea baliatu ahal izango dute, 12 hilabeteen bi potentzia desberdin izateko aukerarekin, jarduerarako beharrezkoa den horniduraren arabera, eta horretarako nahikoa da hornitzaileari horren berri ematea bitarteko telematikoen edo telefonikoen bidez. Horretarako, konpainia hornitzaileek doako arreta emateko telefono-zenbaki bat emango dute. Aplikazio-tarifen aldean, potentziaren osagai finkoaren prezioak ez dira igoko aplikatu behar diren tarifei dagozkienez, baldin eta horrela finkatutakoa iraunkorra bada abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 13. artikuluan jasotako sistemaren segurtasunarekin eta jasangarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, bai eta aplikatu beharreko Europar Batasunaren arauekin ere.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Aldatzea 43/2002 Legea, azaroaren 20koa, Landare-osasunari buruzkoa.*

Honela geratzen da aldatuta 43/2002 Legea, azaroaren 20koa, Landare-osasunari buruzkoa:

Bat. 9 bis artikulua gehitzen da, ondorengo edukiarekin:

«9 bis artikulua. *Sartzea debekatuta daukaten espezieen kasuan hartu beharreko neurriak.*

Agintaritza eskudunak, hautematen baditu lurralde nazionalean sartzea debekatuta daukaten edo ekoizteko betekizun fitosanitarioak ez betetzeagatik behar den baimenik ez duten espezieen edo barietateen landaketak edo laboreak, landareak eta haien produktuak, bai eta horiekin lotutako materiala ere, orduan agintaritza eskudun horrek berehala hartuko du haiek suntsitzeko neurria (nola eta ez den balioesten egokia dela ordezeko beste neurri batzuk hartzea, hain astunak ez direnak baina eraginkortasun-maila berekoak), eta hori neurri hori hartuko du garrantzi ekonomiko potentziala edo ingurumen-oihartzun garrantzitsuak izan ditzaketen izurrien hedapena prebenitzeko, betiere ingurumenaren arloan eskumena duen organoari kontsulta egin ondotik, baldin eta baso-espezieak badira.»

Bi. Aldatu egiten da 56. artikulua c) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Ez betetzea administrazio eskudunak bereziki larriak diren izurriei aurre egiteko edo beraiek prebenitzeko edo izurrien ondoreei aurre egiteko edo beraiek arintzeko ezarritako neurriak.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *Aldatzea 8/2003 Legea, apirilaren 24koa, Albaitaritza-osasunari buruzkoa.*

Aldatu egiten da 8/2003 Legea, apirilaren 24koa, Albaitaritza-osasunari buruzkoa, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 3. artikulua 18. apartatua:

«18. Produktu zoosanitarioak: substantzia edo osagai aktiboak, bai eta horietako bat edo batzuk dituzten formulazioak edo prestakinak ere, baliatzen

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 38

direnak animalien gaixotasunak edo gaitzak diagnostikatzeko, prebenitzeko, tratatzeko, arintzeko edo sendatzeko, gorputzaren funtzioak aldatzeko, defentsa organikoak indusatzeko edo indartzeko edo horiek agerian uzten dituzten erreakzioak lortzeko.

Definizio horren barruan sartuko dira, beste produktu zoosanitario batzuekin batera, albaitaritzako sendagaiak eta abeltzaintzarako biozidak, bai eta beste animalia batzuen aurrean erabiltzen direnak ere, eta aplikatu beharreko araudi espezifikoen arabera eraenduko dira, hargatik eragotzi gabe lege honetan horiei buruz berariaz xedatutakoa.

Beste produktu zoosanitario batzuk: animalien gaixotasunak diagnostikatzeko errektiboak, animalien parametro fisiologikoak kontrolatzeko sistemak, eta animalien ugaltze-materiala mantentzeko produktuak (semen-kontserbatzaileak eta -diluiztaileak, obozitoak eta enbrioak), baldin eta ez badute sendagai-efektua duen substantziarik, salbu eta produktua babestea helburu duten substantziak.»

Bi. Aldatu egiten da 7. artikularen 1. apartatuko i) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«i) Bere gain hartzea animaliak, animalia-jatorriko produktuak, produktu zoosanitarioak eta animalia-elikadurarako produktuak zaintzeko, garraiatzeko, biltegiratzeko, elikatze, hiltzeko eta suntsitzeko kostuak, eta, oro har, era guztietako gastuak, baldin eta haien erantzukizuna bada eta osasun-neurrietatik eratorriak badira, barnean harturik babes-neurrietatik eta agintaritzaren eskudunek har ditzaketen kautela-neurrietatik eratorriak.»

Hiru. Honela geratzen dira idatzita 83. artikularen 15. eta 16. apartatuak:

«15. Albaitari preskribatzaileak ez jakinaraztea albaitaritzaren preskripzioak Presvet datu-baseari edo, bestela, datu-base autonomikoei, azkenok daudenean, betiere araudian ezarritako epeetan eta arrazoi justifikaturik eman gabe; edo albaitari preskribatzaileak datu okerrak jakinaraztea datu-base horiei.

16. Ez aplikatzea araudian aurreikusitako Osasun Plan Integralaren barnean dauden neurri zuzentzaileak ezarritako epean.»

Lau. Aldatu egiten dira 84. artikularen 26. eta 28. apartatuak, ondorengo edukiarekin, eta ezabatu egiten da 29. artikulua:

«26. Albaitaritzako lizentziadunaren edo gradudunaren titulua ez duten pertsonen albaitaritzaren lanbideari dagozkion jarduerak egitea, baldin eta jarduerok ezin badira hartu lanbide-intrusismoaren delitutzat.»

«28. Arau-hauste arin bat bigarren edo gehiagotan egitea, baldin eta errepikatzea badakar bi urteko epean egindako beste edozein arau-hauste arinekin; bi urteko kontatzen hasten dira lehenengo arau-haustearen administrazio-bideko ebazpen irmoaren bitartez jarritako zehapenetik.»

Bost. Aldatu egiten da 85. artikularen 17. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«17. Arau-hauste astun bat bigarren edo gehiagotan egitea, baldin eta errepikatzea badakar bi urteko epean egindako beste edozein arau-hauste astunekin; bi urteko kontatzen hasten dira lehenengo arau-haustearen administrazio-bideko ebazpen irmoaren bitartez jarritako zehapenetik.»

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 39

Azken xedapenetako seigarrena. *Aldatzea 24/2003 Legea, uztailaren 10ekoa, Mahastiari eta Ardoari buruzkoa.*

Aldatu egiten da 24/2003 Legea, uztailaren 10ekoa, Mahastiari eta Ardoari buruzkoa, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 38. artikulua 1. apartatuko m) letra txertatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«m) Ez erabiltzea landatzeko, birlandatzeko edo bihurtzeko emaniko baimen bat, araudi nazionalen edo Europar Batasunekoan finkatutako kasuetan izan ezik.»

Bi. Ezabatu egiten da 39. artikulua 1. apartatuko q) letra.

Hiru. Paragrafo bat gehitzen zaio 42. artikulua 1. apartatuari, eta honela geratzen da idatzita:

«38.1 m) artikuluan jasotako arau-haustearen kasuan, birlandatzeko edo bihurtzeko emaniko baimen bat erabiltzen ez denean, ohartarazpen bat aplikatuko da beti, eta, landatzeko emaniko baimen berri bat ez erabiltzearen kasuan, berriz, zehapenaren zenbatekoa baimenetik egikaritu gabe gelditutako azalerarekiko proportzionala izango da, betiere eragindako kalteen izaera zehazteko irizpide gisa.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Aldatzea ARM/2616/2010 Agindua, urriaren 5ekoa, zeinaren bidez ezartzen baita Genetikoki Eraldatutako Organismoen Ministerioarteko Kontseiluaren esparruan Partaidetza Batzordearen osaera eta funtzionamendua.*

Maila gorderik, aldatu egiten da Genetikoki Eraldatutako Organismoen Ministerioarteko Kontseiluaren esparruan Partaidetza Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen dituen urriaren 5eko ARM/2616/2010 Aginduaren 2. artikuluko 1. apartatuaren d) letrako 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«1) Kide bat, estatu-eremuko ordezkaritza handieneko adierazpena lortu duten nekazaritzako lanbide-antolakundeetako bakoitzeko.»

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Aldatzea 227/2014 Errege Dekretua, apirilaren 4koa, Elikagaien Informazio eta Kontrolerako Agentziaren Estatutua onesten duena.*

Maila gorderik, aldatu egiten da Elikagaien Informazio eta Kontrolerako Agentziaren Estatutua onesten duen apirilaren 4ko 227/2014 Errege Dekretuaren 6. artikuluko 2. apartatuaren c) letraren bederatzigarren marra, eta honela geratzen da idatzita:

«— Kide bat, estatu-eremuko ordezkaritza handieneko adierazpena lortu duten nekazaritzako lanbide-antolakundeetako bakoitzeko; ziurtatuko da horien artean badaudela estatutu honen 3. artikuluko g) letran aipatzen diren sektore edo merkatuen interesak ordezkatzeko dituzten antolakundeak.»

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Aldatzea 833/2014 Errege Dekretua, urriaren 3koa, Operadore Ekologikoen Erregistro Nagusia ezarri eta arautzen duena, bai eta Ekoizpen Ekologikoaren Koordinazio Mahaia sortzen duena ere.*

Maila gorderik, aldatu egiten da Operadore Ekologikoen Erregistro Nagusia ezarri eta arautzen duen eta Ekoizpen Ekologikoaren Koordinazio Mahaia sortzen duen urriaren 3ko 833/2014 Errege Dekretuaren xedapen gehigarriko lehenengo paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Elikaduraren Zuzendaritza Nagusiak partaidetza sektorialeko foro bat deituko du aldian-aldian, eta han izango dira estatu-eremuko ordezkaritza handieneko adierazpena lortu duten nekazaritzako lanbide-antolakundeetako bakoitzeko

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 40

ordezkariak, baita nekazaritza-kooperatibetakoak, antolakunde enpresarialetakoak eta ekoizpen ekologikoaren eremuan ordezkaritza eta gaitasun aitortuak dituzten beste antolakunde eta instituzio batzuetakoak ere.»

Azken xedapenetako hamargarrena. *Aldatzea 64/2015 Errege Dekretua, otsailaren 6koa, zeinaren bidez, alde batetik, Elikatze-katearen Funtzionamendua Hobetzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea zati batean garatzen baita, eta, bestetik, Nekazaritzako Elikagaien Lanbide Arteko Antolakundeak Arautzeari buruzko abenduaren 30eko 38/1994 Legearen Erregelamendua, maiatzaren 16ko 705/1997 Errege Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen baita.*

Maila gorderik, aldatu egiten da 64/2015 Errege Dekretuaren 11. artikuluko 1. apartatuaren c) letrako laugarren marra —64/2015 Errege Dekretua, otsailaren 6koa, zeinaren bidez, alde batetik, Elikatze-katearen Funtzionamendua Hobetzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea zati batean garatzen baita, eta, bestetik, Nekazaritzako Elikagaien Lanbide Arteko Antolakundeak Arautzeari buruzko abenduaren 30eko 38/1994 Legearen Erregelamendua, maiatzaren 16ko 705/1997 Errege Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen baita—, eta honela geratzen da idatzita:

«— Kide bat, estatu-eremuko ordezkaritza handieneko adierazpena lortu duten nekazaritzako lanbide-antolakundeetako bakoitzeko.»

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Aldatzea Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsia.*

Aldatu egiten da urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 15. artikuluko 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Artikulu honetan aurreikusitako ondoretarako, ekoizpen-inguruabartzat joko dira jardueraren noizbehinkako eta aurreikusi ezinezko gehikuntza eta gorabeherak, baldin eta enpresaren jarduera normala izan arren aldi baterako desoreka sortzen badute eskuragarri dagoen enplegu egonkorren eta behar denaren artean, baldin eta gorabeherok ez badiete erantzuten 16.1 artikulua barnean dauden kasuei.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren gorabeheren artean sartuko dira urteko opporraldietatik eratorritakoak.

Iraupen jakineko kontratua ekoizpenaren inguruabarren ondorio denean, kontratuaren iraupena ezingo da izan sei hilabetetik gorakoa. Eremu sektorialeko hitzarmen kolektiboaren bidez, urtebetera arte luzatu ahal izango da kontratuaren gehieneko iraupena.

Legez edo ohituraz ezarrita dagoen gehieneko iraupenetik beherako kontratua egiten denean, eta bi aldeak ados egonez gero, kontratua luzatu ahal izango da, behin bakarrik. Kontratuaren iraupen osoa ezin izango da gehieneko iraupen hura baino luzeagoa izan.

Era berean, ekoizpenarekin loturiko inguruabarren eraginez kontratuak formalizatu ahal izango dituzte enpresek egoera jakin batzuei erantzuteko, baldin eta egoera horiek aldizkakoak, aurreikusteko modukoak eta iraupen laburrekoak eta paragrafo honetan aurreikusitakora mugatuak badira, barnean harturik nekazaritza-kanpainak eta nekazaritzako elikagaienak. Enpresek gehienez ere laurogeita hamar egunez erabili ahal izango dute kontratu hori urte naturalean, nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresek izan ezik, horiek 120 egun erabili ahal izango baitituzte urte naturalean, kontuan hartu barik egun horietako bakoitzean egoera zehatzei erantzuteko beharrezkoak diren langileak, zeinek behar bezala egon beharko baitute identifikatuta kontratuan.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 41

Laurogeita hamar egun horiek —edo ehun eta hogeia egun, nekazaritzako elikagaien sektoreko ustiategi eta enpresak direnean— ezin izango dira erabili modu jarraituan. Enpresek, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, kontratu horiek erabiltzeko urteko aurreikuspena helarazi beharko diete langileen legezko ordezkariari.

Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektorean eta sektore horiei lotutako industrian kontratu hori egiteko kausa haxe da: iraupen laburreko kanpaina bat edo batzuk estaltzea, betiere urtean benetako 120 lanaldiko mugarekin.

Ezin izango dira identifikatu kontratu honen kausatzat enpresaren ohiko jarduera edo jarduera arrunta diren kontraten, azpikontraten edo administrazio-emakiden esparruan eginiko lanak, hargatik eragotzi gabe halakoak egitea, ekoizpenaren inguruabarrak aurreko zehaztapenei jarraikiz betetzen direnean.»

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Aldatzea 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.*

Paragrafo bat txertatzen da azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202. artikuluko 1. apartatuaren amaieran —(9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora—, eta honela geratzen da idatzita:

«Apartatu honen lehenengo paragrafoan aurreikusitako baldintzak betetzen direnean, instituzio publikoetan elikadura-zerbitzuak kontratatzeke baldintza-agirietan nahitaezkoa izango da haxe txertatzea: exekuzio-baldintza berezi gisa, elikagai-xahuketaren alorreko jardunbide egokiak kontuan izatea eta, ildo beretik, Elikagai-galerak eta -xahuketa Prebenitzeari buruzko xxx/202x Legea, xxx... xxxkoa, betetzea.»

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Aldatzea 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko.*

Aldatu egiten dira Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18. artikuluko 4. eta 6. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«4. Erabilera bakarreko ontzien prebentzioa sustatzeko, 400 metro koadroko edo gehiagoko azalera duten elikagaien txikizkako saltokiek enbalaje primarioak gabe aurkeztutako produktuak eskaintzera bideratuko dute beren salmenta-eremua, barnean harturik solteko salmenta edo andel berrerabilgarrien bidezko salmenta, helburu gisa harturik elikagai-xahuketa eta ontzien sorrera murriztea.

Produktu freskoak, edariak eta elikagai kuzinatuak saltzen dituzten elikagai-establezimendu guztiek onartu beharko dute produktuaren izaerarako egokiak diren eta behar bezala higienizatuta dauden andel berrerabilgarriak erabiltzea (poltsak, tuperrak eta botilak, besteak beste), eta kontsumitzaileak arduratuko dira horiek atontzeaz. Merkataria andel horiek zerbitzurako ezetsi ahal izango ditu, baldin eta nabarmen zikin badaude edo egokiak ez badira. Horretarako, salmenta-puntuak andel berrerabilgarrien garbitasun- eta egokitasun-baldintzei buruzko informazioa eman beharko dio azken kontsumitzaileari.»

(...)

«6. ...

Elikakateko agente guztiak beharturik daude administrazioekin lankidetzan aritzera elikagai-hondakinak kuantifikatzeko, 65.5 b) artikuluan aurreikusitako betebeharra betetzeko, bai eta 2008/98/EE Zuzentzua, Europako Parlamentuarena

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 42

eta Kontseiluarena, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa dena eta zuzentarau jakin batzuk indargabetzen dituen, betetzeko ere.»

Azken xedapenetako hamalagarrena. *Aldatzea 30/2022 Legea, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita Nekazaritza Politika Erkidea eta hari lotutako beste gai batzuk kudeatzeko sistema.*

6. apartatua gehitzen zaio Nekazaritza Politika Erkidea eta hari lotutako beste gai batzuk kudeatzeko sistema arautzen duen abenduaren 23ko 30/2022 Legearen 8. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«6. Agintaritza eskudunek 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako datu-basea erabili ahal izango dute, betiere enplegatu publikoen eta entitate erabakitzaile, betearazle eta instrumentalen zerbitzuan dauden gainerako langileen interes-gatazkarako arriskua gainbegiratzeko, baldin eta Batasunaren aurrekontua gauzatzen parte hartzen badute, banaka edo kide anitzeko organoetako kide izanda, Nekazaritza Politika Erkideak NBEF eta LGENF funtsekin zuzenean, zeharka eta partekatutako kudeaketarekin finantzatutako esku-hartzei edo neurriei dagokienez, barnean harturik horri buruzko prestakuntza-ekintzak, auditoretza edo kontrola.»

Azken xedapenetako hamabosgarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.13) artikuluan xedatutakoaren babesean emana da, zeinak Estatuari eratxekitzen baitio jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gaineko eskumena, eta kontuan hartu da, berebat, 149.1.23) artikuluan xedatutakoa ere, zeinak Estatuari eratxekitzen baitio ingurumena babesteari buruzko oinarritzko legediaren gaineko eskumena, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek babes-arau gehigarriak ezartzeko dituzten ahalmenak.

Azken xedapenetako hamaseigarrena. *Erregelamendu-garapenerako gaikuntza.*

Nazioaren Gobernuari ematen zaio ahalmena bere eskumenen eremuan lege hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapenak emateko.

Azken xedapenetako hamazazpigarrena. *Elikagai-dohaintzen araubide fiskala.*

Gobernuak ahalik eta lasterren ezarriko du irabazi-asmorik gabeko entitateei elikagaiak edo premia biziko artikulua eskuratzeko dohaintzan emandako ondasun guztien entreei —izan gauzatan emanak, izan dirutan emanak— ehuneko 0ko tasa berehala aplikatzeko mekanismoa. Entitate horiek irabazi-asmorik gabekotzat jotzeko, kontuan hartuko da 49/2002 Legeak, abenduaren 23koak, Irabazi-asmorik gabeko entitateen araubide fiskalari eta mezenasgoarentzako pizgarri fiskalei buruzkoak, 2. artikuluan xedatzen duena, betiere aintzakotzat harturik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 91.Lau artikuluan ezarritakoa.

Araubide hori dohaintzetarako erabiliko diren elikagaiei eta ondasunei soilik aplikatuko zaie, eta baztertu egingo dira merkataritza-zirkuitura itzultzeko diren eskuratutako produktuak.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 4-9

Pág. 43

Azken xedapenetako hemezortzigarrena. *Aldatzea 19/1995 Legea, uztailaren 4koa, Nekazaritzako Ustiategiak Modernizatzeari buruzkoa.*

Aldatu egiten da Nekazaritzako Ustiategiak Modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 4. artikuluko 1. apartatuaren c) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Hemezortzi urte beteta edukitzea eta ez edukitzea beteta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bateginean ezarritakoaren arabera dagokion erretiro-adin arrunta.»

Azken xedapenetako hemeretzigarrena. *Aldatzea 139/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa garatzen dituen.*

Maila gorderik, mantendu egiten da Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa garatzen dituen otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuaren eranskina ondoren zehaztuko den espeziea Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan; betiere, aipatutako populazioak honelaxe aldatuko dira:

«ERANSKINA

Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan eta, kasuaren arabera, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartutako espezieen zerrenda

Izen zientifikoa	Izen arrunta	Aipatutako populazioa	Katalogoko kategoria
UGAZTUNAK			
HARAGIJALEA			
Canidae			
<i>Canis lupus</i> , Linnaeus, 1758	Otsoa	Duero hegoaldea	

...»

Gainerako guztian, eutsi egiten zaio egungo idazketari.

Azken xedapenetako hogeigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau 2025eko urtarrilaren 2an jarriko da indarrean.

Alabaina, lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean seigarren xedapen gehigarria, xedapen indargabetzailea eta azken xedapenetako lehenengoa, bigarrena eta zazpigarrenetik hamargarrenera bitartekoak.

Lege honen 6. artikuluan jasotako nahitaezko neurriak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebeteren buruan aplikatuko dira.

Diputatuen Kongresuaren Jauregia, 2025eko martxoaren 20a.